**Esptea.: 2024PLEN0010**
**Erref.: GU /** AEL

**HONDARRIBIKO UDAL TXIT GARAIAK 2024KO IRAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA.**

Hondarribiko Hirian, bi mila eta hogeita lauko irailaren hogeita seian udaletxe honetako Batzar Aretoan Udalbatza bildu da Igor Enparan Araneta jaun **alkate-udalburuaren** lehendakaritzapean eta ondoren aipatzen diren **udalkideak** partaide direla:

**Alkateordeak:**

Estitxu Urtizberea Sorzabal and.
Garoa Lekuona Izeta and.
Guadalupe Queiruga Oronoz and.
Josu Peña Alza jna.
Ortzi Alonso Murelaga jna.

**eta zinegotziak:**

Aitzol Arroyo Tumas jna.
Gonzalo Carrión Insausti jna.
María Serrano Olascoaga and
Juan Luis Silanes Aguirre jna.
Ainhoa Martinez Arrieta and.
Ander Ribes Lazcanotegui jna.
Alaitz Zabala Zarauz and., bilkuran 18:03an sartu dena, eguneko aztergaia aldatzeko bozketaren ondoren eta 1. puntuari ekin aurretik.
Jesús Ignacio Alvarez Yeregui jna.

Ezin etorria adierazi dute: Maria Noemi Odriozola Pascual eta Koldobika Rodriguez Akarregi jaun-andreek.

Erabakiak hartzeko nahikoak izanik, bilkura publikoa egin dute arratsaldeko seiak eta batean, Gorka Urgoiti Agirre Udal idazkari jauna ere bertan naizela.

Gai-zerrendan sartutako gaiak aztertu, eztabaidatu eta bozkatu baino lehen, Lehendakaritzak bilkura ireki du, eta bertan zenbait aldaketa egitea eta aldaketa

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE ESTA CIUDAD DE HONDARRIBIA EL DIA 26 DE SEPTIEMBRE DE 2024.**

En la Ciudad de Hondarribia a veintiséis de septiembre de dos mil veinticuatro se constituye el Ayuntamiento Pleno en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial, bajo la presidencia del Sr. **alcalde-presidente,** D. Igor Enparan Araneta, y con la asistencia de los/as **tenientes de alcalde Sres./as.:**

Dª Estitxu Urtizberea Sorzabal.
Dª Garoa Lekuona Izeta.
Dª Guadalupe Queiruga Oronoz.
D. Josu Peña Alza.
D. Ortzi Alonso Murelaga.

**y de los concejales y las concejalas Sres./as.:**

D. Aitzol Arroyo Tumas.
D. Gonzalo Carrión Insausti.
Dª María Serrano Olascoaga
D. Juan Luis Silanes Aguirre.
Dª Ainhoa Martinez Arrieta.
D. Ander Ribes Lazcanotegui.
Dª Alaitz Zabala Zarauz, la cual se ha incorporado a la sesión a las 18:03, tras proceder a la votación de la modificación del Orden del Día y antes de dar inicio al punto 1º.
D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui.

Han justificado su ausencia: Dª Maria Noemi Odriozola Pascual y D. Koldobika Rodriguez Akarregi.

Quienes siendo número suficiente se constituyeron en sesión pública a las dieciocho horas y un minuto, asistidos/as de mí, el secretario, D. Gorka Urgoiti Agirre.

Abierta la sesión por la Presidencia, y, antes de proceder al examen, debate y votación de los asuntos incluidos en el Orden del Día, propone que

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

hauek berrestea proposatu du. Hona hemen proposatzen dituen aldaketak:

se realicen ciertas modificaciones en el mismo y su ratificación con las modificaciones incluidas. Las modificaciones que propone son las siguientes:

7. puntuari dagokion mozioa erantsi da puntuen ordena mantendu da aipatutakora arte, eta 7. puntutik aurrera gaiak honela geratu dira antolatuta:

Se incluye la moción correspondiente al punto 7º, se mantiene el orden de los puntos hasta el mencionado y a partir del punto 7º los asuntos quedan ordenados de la siguiente manera:

.-7. puntua: Abotsanitz, EAJ, PSE-EE-PSOE eta EH Bildu udal taldeek aurkezturiko mozioa Hondarribiko alkate, zinegotzi eta udal funtzionarioak haien karguetan birjartzeari buruz, 2024ko irailaren 25eko 10806SE zenb.koa.

.-Punto 7º: Moción presentada por los grupos municipales Abotsanitz, PNV, PSE-EE-PSOE y EH Bildu en relación a la reposición en sus cargos de alcaldes, concejales y funcionarios municipales de Hondarribia, RE nº 10806 de 25 de septiembre de 2024.

.-8. puntua: 2024ko 1847. zenbakitik 2546. zenbakira bitarteko Alkate Dekretuen berri ematea.

.-Punto 8º: Dar cuenta de los Decretos de Alcaldía números del 1847 al 2546 de 2024.

.-9.puntua: Erregu eta galderak.

.-Punto 9º: Ruegos y preguntas.

Proposatutako aldaketen aurka esku-hartzerik egin ez denez, Osoko Bilkurak aho batez erabaki du eguneko aztergaia aldatzea, alkateak proposatutakoaren ildotik.

No habiéndose producido intervenciones en contra de las modificaciones propuestas, el Pleno por unanimidad acuerda modificar el Orden del Día en el sentido propuesto por el Sr. alcalde.

Interbentzioak:

Intervenciones:

**ALKATE JAUNA:** Entzuten da? Bai, ez? Arratsalde on guztioi. Eskerrik asko ikasturte politiko berri honetako lehenengo osoko bilkura honetara gerturatu ahal izateagatik. Herritar ordezkari guztiak hemen egoteko saiakera egin dugu. Ez gaude denak, arrazoi bat edo besteagatik, baina bilkurari hasiera emango diogu.

**EL SR ALCALDE:** ¿Se escucha? ¿Sí, no? Buenas tardes a todas y a todos. Gracias por acercaros al primer pleno de este curso político. Hemos intentado que todos los y las representantes políticas pudieran estar hoy aquí. No estamos todos, por una u otra razón, pero vamos a dar inicio a la sesión.

Lehenik eta behin, gai-zerrendan aldaketa bat egitea proposatu nahi dut, izan ere, bart, udal talde politiko ezberdinetako adostasunarekin mozio bat erregistratu baitzen eta, hori horrela, zazpigarren puntuan proposamen hori bozkatzea eta eztabaidatzea proposatzen dut. Ondoren, zortzigarren puntuan, Alkateen Dekretuen berri ematea, eta bederatzigarrenean, erregu eta galderak, ongi iruditzen bazaizue.

En primer lugar, quiero proponer un cambio en el orden del día, ya que anoche, con el consenso de los diferentes grupos políticos municipales, se registró una moción y, así las cosas, propongo que en el punto nueve se vote y se debata esa propuesta. Seguidamente, en el punto octavo, se dará cuenta de los Decretos de Alcaldía y, en el noveno punto, tendremos los ruegos y preguntas, si es que les parece bien.

Aipatu nahi dut pertsona batek eskatu didala hitz hartzea behin udalbatza bukatutakoan, udal ordezkari guztiak bertan gaudela. Beraz, erregu eta galderak bukatzen dugunean, mesedez, ez joan,

Quiero comentar que una persona me ha pedido realizar una intervención, una vez finalizado el pleno de la corporación, ante la presencia de todos los y las representantes municipales. Por tanto, al

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

pertsona batek hitza hartzea eskatu duelako eta, hari hitza ematea ongi iruditzen bazaizue, emango diogulako hitza.

final de los ruegos y preguntas, por favor, no se vayan, porque una persona nos ha pedido la palabra y, si les parece bien, así lo haremos.

Beraz, gai-zerrendaren aldaketa bozkatzea proposatzen dut, esan nahi dudan neurrian. Jaso duzu ondo, Idazkari Jauna? Mesedez.

Así pues, propongo someter a votación la modificación del orden del día, según he relatado. ¿Lo ha recogido bien, señor Secretario? Por favor.

Ba, aldeko bozkak?

¿Votos a favor?

Aho batez onartuta

Aprobado por unanimidad.

Alaitz Zabala Zarauz andrea bilkuran 18:03an sartu da, 1. puntuari ekin aurretik.

Dª Alaitz Zabala Zarauz se ha incorporado a la sesión a las 18:03 horas, antes de dar inicio al punto 1º.

Bilkura hasi ondoren, ondoko zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dira:

Abierta la sesión por la Presidencia, se procede a tratar los siguientes puntos del Orden del Día:

**UDAL KUDEAKETA BATZORDEA**

**COMISIÓN DE GESTIÓN MUNICIPAL**

**IDAZKARITZA**

**SECRETARÍA**

**1.-HIRI AUTOBUS ZERBITZUA MARTXAN JARTZEKO MEMORIA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

**1.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DE LA MEMORIA DE PUESTA EN MARCHA DEL SERVICIO DE AUTOBÚS URBANO.**

Hiri autobus zerbitzua martxan jartzeko memoria onartzeko proposamenari dagokion espedientea aztertu ondoren.

Examinado el expediente relativo a la propuesta de aprobación de la memoria de puesta en marcha del servicio de autobús urbano.

Udal Kudeaketa batzordearen 2024ko irailaren 19ko diktamena ikusi ondoren.

Visto el dictamen de la Comisión de Gestión Municipal de 19 de septiembre de 2024.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Aldeko botoak: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (1) eta EH Bildu (1).

Votos a favor: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (1) y EH Bildu (1).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** bertaratutakoen aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-** Aintzat hartzea Hondarribian hiri-autobusaren zerbitzua emateko justifikazio-memoria, bideragarritasun ekonomikoaren azterketa eta merkatuaren analisia, eta erantsitako dokumentazio osagarria.

**PRIMERO.-** Tomar en consideración la Memoria justificativa de la prestación del servicio de autobús urbano en el municipio de Hondarribia, junto con el estudio de viabilidad económico y análisis de mercado y la documentación complementaria anexa.

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

**BIGARREN.-** Zerbitzu publikoa kudeatzeko modutzat hartzea zeharkako kudeaketa, herritarrei zuzeneko prestazioak ekarriko dizkien zerbitzu bat kontratatuz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen arabera.

**SEGUNDO.-** Considerar como forma de gestión del servicio público la gestión indirecta a través de la contratación de un servicio que conlleven prestaciones directas a la ciudadanía en los términos de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público.

**HIRUGARREN.-** Memoria eta dokumentazio osagarria jendaurrean jartzea 30 egun naturaleko epean, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragartzea, partikularrek eta erakundeek egoki iritzitako oharrak egin ditzaten. Halaber, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoan: https://www.hondarribia.eus.

**TERCERO.-** Someter la Memoria así como la documentación complementaria a información pública por un plazo de 30 días naturales, anunciándose en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, a efectos de que, por los particulares y entidades, puedan formular las observaciones que estimen pertinentes. Asimismo, estará a disposición de los interesados en la sede electrónica de este Ayuntamiento https://www.hondarribia.eus.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

Intervenciones en relación al acuerdo:

**ALKATE JAUNA:** Ongi iruditzen bazaizue, eta gai-zerrenda zehaztuta, eguneko aztergaiekin hasiko gara.

**EL SR ALCALDE:** Si les parece bien, y concretado el orden del día, comenzaremos con los temas del mismo.

Idazkaritzatik, Udal Kudeaketa Batzordeko lehenengo puntuarekin hasiko gara. Lehenengo puntua “1.- Hiri autobus zerbitzua martxan jartzeko memoria onartzeko proposamena” da.

Desde Secretaría, comenzamos con el primer punto de la Comisión Gestora Municipal, que es “1.- Propuesta de aprobación de la memoria para la puesta en marcha del servicio de autobús urbano”.

Honen harira, oroitu nahi dut 2021eko ekainaren 24an, Hiri autobusa martxan jartzeko espedienteari hasiera ematea erabaki zuela Udalbatza honek. Espedientearen hasiera, aldiz, 2024ko ekainaren 14an Alkate Dekretu bidez eman zen. Dekretu honen arabera, Hondarribian, bidaiarien garraio erregularreko zerbitzu publiko bat ezartzeko erabakiari jarraipena ematea agintzen da, baita azterketa batzorde bat sortzea ere. Batzorde horren lana justifikazio-memoria bat idaztea izango da dagokion araubidea kontutan izanda.

Al hilo de ello, quiero recordar que el 24 de junio de 2021 esta Corporación acordó iniciar el expediente para la puesta en marcha del Autobús Urbano. El expediente se inició mediante Decreto de Alcaldía de fecha 14 de junio de 2024. Según este decreto, en Hondarribia, se ordena dar continuidad al acuerdo de establecer un servicio público de transporte regular de viajeros, así como a la creación de una Comisión de Estudio, cuya labor consistirá en la elaboración de una memoria justificativa tomando en consideración la normativa correspondiente.

Hainbat sailetako teknikari eta udal talde politiko guztietako politikariak osatuta abiatzen da azterketa batzordea ekaina amaieran, eta udaran zehar, hiru bilera burutu ditugu, non autobus zerbitzua martxan jartzeko hainbat gai jorratzen diren.

La Comisión de Estudio arranca a finales de junio compuesta por técnicos de diferentes departamentos y políticos de todos los grupos municipales, y a lo largo del verano lleva a cabo tres reuniones, en las que se abordan diversos temas para poner en marcha el servicio de autobús.

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

Abuztuaren 14an burututako bileran Batzordeak proposatzen du proiektuaren memoria eta bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterlana udalbatzari onarpenera proposatzea.

Adierazi beharra dut autobus zerbitzu bat ezartzea Hondarribiko Udalaren eskumen eremuan barnean sartzen dela eta, gainera, titulartasun erreserbatuko jarduera ekonomiko gisa hartu behar dela. Nahiz eta ez den nahitaezko zerbitzu bat Hondarribiaren tamainako herrientzat. Gogoratu 50.000 biztanletik gorako herrientzat nahitaezko zerbitzu bat dela eta araubideak onartzen duela 50.000 biztanletik beherako herriek, beraiek hala erabakitzen badute, zerbitzu hori martxan jartzea. Beraz, gure kasua bigarren kasu hau litzateke, eta titulartasun erreserbatuko jarduera ekonomiko bati buruz ari baldin bagara, behartuta gaude memoria batean jasotzera jarduera horren justifikazioa: soziala, juridikoa eta ekonomikoa. Nola ez, aurreikusitako garraio publikoko zerbitzu honek bideragarritasun ekonomiko-finantzarioko irizpideei erantzun behar die, arau fiskalak edo aurrekontu-diziplina inola ere arriskuan jarri gabe.

Honen haritik, azterketa batzordean jorratutakoen artean ondorengo gaiak jorratu ditugu:

Alde batetik, lehen esan dudan bezala, justifikazio soziala, mugikortasun iraunkor, eraginkor eta inklusiboak betetzeko helburuak lortzera bideratutako garraio zerbitzu bat nahi dugu.

Justifikazio juridikoari dagokionean, herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzan zerbitzuaren tipologian kokatu nahi dugu hasierako zerbitzu honen ematea. Hau da, autobus zerbitzua lehenengoz ematen dugunean, herritarren aldeko zuzeneko prestazio gisa jorratuko dugu.

Eta, justifikazio ekonomikoari dagokionean, landu den bideragarritasun azterlanaren arabera, lehen urterako aurreikus dezakegun zerbitzuaren kostua 406.000 euro ingurukoa izango litzateke. Aurreikusten da urtero % 5eko igoera izango duela.

En sesión celebrada el 14 de agosto la Comisión plantea proponer al Pleno la aprobación de la memoria del proyecto y el estudio de viabilidad económica del mismo.

Debo señalar que la implantación de un servicio de autobús entra dentro del ámbito de competencias del Ayuntamiento de Hondarribia y que debe considerarse además como una actividad económica de titularidad reservada. Aunque no se trate de un servicio obligatorio para poblaciones del tamaño de Hondarribia. Recordar que se trata de un servicio obligatorio para los municipios de más de 50.000 habitantes y que el régimen permite que los municipios de menos de 50.000 habitantes puedan ponerlo en marcha, si así lo deciden. Por tanto, nuestro caso sería el segundo, y si nos referimos a una actividad económica de titularidad reservada, estamos obligados a recoger en una memoria la justificación social, jurídica y económica de la misma. Cómo no, este servicio de transporte público previsto debe responder a criterios de viabilidad económico-financiera, sin comprometer en modo alguno las normas fiscales o la disciplina presupuestaria.

Al hilo de ello, entre los temas tratados en la comisión de estudio, se han abordado los siguientes:

Por un lado, como he dicho, la justificación social; queremos un servicio de transporte orientado a la consecución de los objetivos de movilidad, sostenibilidad, eficiencia e inclusividad.

En cuanto a la justificación jurídica, se trata de situar la oferta de este servicio inicial dentro de la tipología del servicio que conlleva prestaciones directas en favor de la ciudadanía. Es decir, cuando prestemos el servicio de autobús por primera vez, lo abordaremos como una prestación directa en favor de la ciudadanía.

Y, en cuanto a la justificación económica, según el estudio de viabilidad elaborado, el coste estimado del servicio para el primer año sería de unos 406.000 euros. Y se prevé un incremento anual del 5%.

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

Gaur onarpenera ekarri dugun azterlanak autobusaren tarifak eta zerbitzua arautzeko proiektu bat ere ekarri behar du. Aurrerago ekarri behar du urrats hori. Uste dugu honetan Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak plataforma egoki bat eskaintzen digula, Hondarribiko garraioa Gipuzkoako garraio-sisteman integratzeko, zerbitzuak, sareak eta tarifak koordinatuko dituelarik. Baina hau Udalbatzaren bigarren puntura eramango dugu bozkatzera.

El estudio que hoy traemos para su aprobación debe incluir también un proyecto de regulación de las tarifas y del servicio de autobús. Ese paso debe traerlo consigo más adelante. Creemos que en ese sentido, la Autoridad territorial del Transporte de Gipuzkoa nos ofrece una plataforma adecuada para integrar el transporte de Hondarribia dentro del sistema de transporte de Gipuzkoa, coordinando servicios, redes y tarifas. Pero esto lo someteremos a votación en el segundo punto de la Corporación Municipal.

Bukatzeko, aipatu nahi dut kontu-hartzailearen 23/2024 txostena ere jaso dugula, non autobus zerbitzua martxan jartzeak betebeharreko zerga-arauetan izango duen eragina agerian uzten duen. Hau da, aurrekontu egonkortasuna, gastu-araua eta finantza-iraunkortasunaren ikuspegitik izango duen eragina.

Por último, quiero señalar que también se ha recibido el informe 23/2024 del interventor, en el que se pone de manifiesto el efecto que tendrá en la normativa tributaria de obligado cumplimiento la puesta en marcha de dicho servicio de autobús. Es decir, su impacto desde el punto de vista de la estabilidad presupuestaria, de la regla del gasto y de la sostenibilidad financiera.

Autobusarena zerbitzu defizitarioa da, eta zerbitzu hori ematea, eta zerbitzu hori ematea ez dago ikuspegi ekonomiko batetik justifikatuta. Bai, aldiz, ikuspegi sozial batetik, noski.

El servicio de autobús es un servicio deficitario, cuya prestación no está justificada desde un punto de vista económico. Sí lo está, sin embargo, desde un punto de vista social, claro.

Zerbitzua martxan jartzeak, zerbitzu-kontratua zeharkako kudeaketaren bidez, ez dio eragingo zor biziaren mugari. Epe luzean, aldiz, eragin diezaioke Udalaren finantza-iraunkortasunari.

La puesta en marcha del servicio mediante gestión indirecta de un contrato de servicios, no afectará al límite de la deuda viva. Pero a largo plazo puede afectar a la sostenibilidad financiera del Ayuntamiento.

Gastu-arauari dagokionean, Udalaren gainerako aldagaiak aurreko urtekoaren moduan mantenduko balira, zerbitzu hau martxan jartzeak ez luke bere horretan gastu-araua urratuko. Baina, aldiz, jakin badakigu gainerako gastu guztiak ez direla finko mantentzen, izan ere, bai obrak eta bai zerbitzuak azken urtean KPIaren eraginarengatik kostuak asko handitu dituenez, ikuspegi orokor batetik hartu beharra dago hau. Beraz, gastu-arauari dagokionean ere, zerbitzu hau onartzeak izan dezake gure aurrekontuetan eta gure ekonomian eragin nabarmen bat. Beraz, apustu bat da egiten ari garena Hondarribiko Udaletik autobus zerbitzua martxan jartzeko, uste dugulako beharrezkoa dela, Hondarribiko hiriak behar-beharrezkoa du garraio sistema publiko egoki bat izatea, eta gure zerbitzua lagungarri izango da baita ere Hondarribitik aritzeaz

Respecto a la regla de gasto, si el resto de variables del Ayuntamiento se mantuvieran al nivel del año pasado, la puesta en marcha del servicio no contravendría la regla de gasto. Pero somos conscientes de que no todos los demás gastos se mantienen fijos, ya que tanto obras como servicios han aumentado mucho sus costes en el último año debido a la repercusión del IPC, por lo que hay que contemplarlo desde una perspectiva general. Así que, en lo que se refiere a la regla de gasto, la aprobación de este servicio puede tener un impacto significativo en nuestros presupuestos y en nuestra economía. Por tanto, lo que estamos haciendo es una apuesta para poner en marcha un servicio de autobús desde el Ayuntamiento de Hondarribia, porque creemos que es necesario; la ciudad de Hondarribia necesita contar con un

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

aparte, Hondarribitik kanpora joan nahi duten pertsonentzako bai Irunera edo eskualde honetatik kanpo Gipuzkoa mailan mugitu nahi dutenentzako eragin berezia izango du, intermodalitatea ere jasotzen duelako.

sistema de transporte público adecuado, y nuestro servicio, además de actuar desde Hondarribia, ayudará también a las personas que quieren desplazarse fuera de Hondarribia, tanto a Irun como fuera de la comarca a nivel de toda Gipuzkoa, y ello va a tener un alcance especial, porque también contempla la intermodalidad.

Ez dakit galderarik baduzuten…?

¿No sé si desean preguntar algo…?

Bai, Kalixa, zurea da hitza.

Sí, Kalixa, tiene la palabra.

**SILANES JAUNA:** Arratsalde on guztioi.

**EL SR SILANES:** Buenas tardes a todas y a todos.

Zuk aipatutako azken apustuaren aldetik hasiko naiz. Guk uste dugu apustu sendoa izan behar duela, ausarta. Aipatu duzu, alkateak, defizitarioa izango dela zerbitzu hau, eta logikoa da. Garraio publikoaren inguruan badakigu ze gastu dauden, baina Udalak bere gain hartu beharko luke.

Empezaré hablando de la apuesta que ha comentado. Creemos que tiene que ser una apuesta firme, valiente. Ha comentado antes, alcalde, que el servicio será deficitario, y es lógico. Todos sabemos qué gastos se dan en torno al transporte público, pero el Ayuntamiento tendría que asumirlos.

Parte hartu dugu mahai tekniko politikoan eta, mahai tekniko horretan aipatu genuen gure aldetik ikusten genuela beharrezkoa zela hogei minutuko maiztasuna izatea zerbitzu honek. Herrigintzan gaudenok uste dut askotan jartzen garela herritar bezala, eta, herritar bezala pentsatzen badugu, gure aldetik ikusten dugu hogei minutuko maiztasunarekin agian gehiago erabiliko dela autobus zerbitzua.

Hemos participado en la mesa técnica y política, en la que comentamos que por nuestra parte veíamos necesario que este servicio tuviera una frecuencia de veinte minutos. Quienes hacemos país desde la base adoptamos muchas veces la perspectiva del ciudadano de a pie, y pensamos como tal, y en ese sentido nos parece que estableciendo una frecuencia de veinte minutos, quizá este servicio de autobús se utilice más.

Gero, ondorioak aterako ditugu eta, agian, hasten bagara hogeita hamar minutuko maiztasunarekin, ez ditugu datu hain onak ikusiko. Gure aldetik, mahai tekniko politikoan eta batzordean aipatu genuen bezala, eskatuko genuke buelta bat ematea eta pentsatzea berriro ere ea hogei minutuko maiztasuna eskaini dezakegun herritar guztiontzat.

Luego, ya sacaremos conclusiones y, a lo mejor, si empezamos con frecuencias de treinta minutos, puede que los datos no sean tan buenos. Por nuestra parte, tal y como comentamos en la mesa técnica política y en la comisión, pediríamos hacer un alto y repensar si podemos ofrecer unas frecuencias de veinte minutos para toda la ciudadanía.

Gure bozka aldekoa izango da, baina egia da zuk aipatutako kontu-hartzailearen txostenean atentzioa eman digula bigarren arloan kontu-hartzaileak aipatzen dituen irizpide batzuk. Irakurriko dut.

Nuestro voto será favorable, pero es cierto que en el informe del interventor que usted menciona nos han llamado la atención algunos de los criterios a los que alude el interventor en el segundo apartado. Lo voy a leer.

Kontu hartzaileak finantza-kontrolean esku hartzeko egiten duen txostena, bigarren zatia (eta txostenean

El informe de intervención del control financiero que hace el interventor, en la parte segunda (y voy

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

idatzita dagoen bezala irakurriko dut):

"Bideragarritasun azterlanaren kontu hartzailearen iritziz, badira aintzat hartu beharreko zenbait muga". Lehenengo puntuan hau jartzen du: "Ez dago azterketa egiteko metodologia zehatzik. Hori dela eta, ez dakigu azterlanak zer ibilbide egin duen balio jakin batzuk zehazteko, hala nola kostuen egiturari buruzko datuak, etab". Bigarren puntuan, "zerbitzuaren kostuei buruzko datuen jatorria ez dago behar bezala azalduta. Azalpena nahikoa izango balitz, azterketa irakurtzen duen tarteko edozein herritarrek datuak ulertuko lituzke eta, txostenean emandako azalpenei jarraituz, datu berberetara iritsi ahal izango luke". Eta, azken puntuan: "Diru sarrera potentzialen kalkuluak ez du metodologiarik, eta ez da metodo estatistiko prediktiboetatik edo antzekoetatik ateratako zenbatespen bat. Gainera, kontu hartzailearen iritziz, oinarrizko akatsak daude; adibidez, bidaien banaketa aste osoan homogeneoa izango dela uste izatea".

Aipatu dudan bezala, guk alde bozkatuko dugu, baina egia da txosten honek adierazten duela zenbait zalantza. Hau espedientearen hasiera da, jarraipen bat eta aurrera egin behar dugu denon artean. Horregatik, guk alde egingo dugu, eta, lehiaketara ateratzen denean, uste dut plegua egiteko igual beste azterketa bat eskatu beharko dugula, baina beno, soilik esaten dugu kontuan hartu beharreko txostena dela eta begi onez ikusten dugula azken urteotan landutako espedienteak jarraipena daukala, eta horretan lagungarri izango garela. Eskerrik asko.

**ALKATE JAUNA:** Besterik? Josu?

**ALVAREZ JAUNA:** Kaixo, arratsalde on. Gure aldetik, gure bozka ere aldekoa izango da. Ezin lezake beste modu batera izan. Nahiz eta apustuak izan bere tarteak…planteatu diren hutsune juridiko eta ekonomiko horiek. Nolanahi ere, apustu hau beharrezkoa da. Ez da oraingo kontua. Ni 2007. urtean sartu nintzen udal honetan, eta planteatu genituen lehen hiru aldarrikapenak honako hauek izan ziren: autobusa; ustekabeko zerbait gertatzen zaion jendeari etxe bat bermatzea; eta Musika Eskola beste leku batera eramatea.

a leer tal y como pone en el informe):

"En opinión del interventor del estudio de viabilidad, existen una serie de limitaciones que han de ser consideradas". En el punto uno pone "no existe una metodología definida para llevar a cabo el estudio. Por ello, no se conoce el itinerario realizado del estudio para definir ciertos valores como datos de estructura de costes, etc.". En el punto dos, "no está suficientemente explicado el origen de los datos de los costes del servicio. Una explicación suficiente implicaría que cualquier persona media que leyera el estudio pudiera entender los datos considerados y llegar a los mismos datos siguiendo las explicaciones ofrecidas en el informe". Y, en el último punto, "El cálculo de los ingresos potenciales carece de metodología y no es una estimación obtenida a partir de métodos estadísticos predictivos o similares. Además, en opinión del interventor, existen errores básicos como considerar que la distribución de viajes es homogénea durante toda la semana".

Como ya he mencionado, vamos a votar a favor, pero es cierto que este informe expresa algunas dudas. Esto es el inicio del expediente, hay que hacerle un seguimiento y avanzar entre todos los grupos. Por esa razón, votaremos a favor y, cuando salga a concurso, creo que seguramente tendremos que pedir otro estudio para elaborar el pliego, pero bueno, simplemente decimos que es un informe a tener en cuenta y que vemos con buenos ojos que el expediente elaborado en los últimos años tenga continuidad y que vamos a contribuir a facilitar las cosas. Gracias.

**EL SR ALCALDE:** ¿Algo más? ¿Josu?

**EL SR ALVAREZ:** Hola, buenas tardes. Por nuestra parte, nuestro voto también será favorable. No podría ser de otra manera. Aunque la apuesta tenga sus lagunas..Esas lagunas jurídicas, económicas, que se han planteado. Pero, en todo caso, la apuesta es una apuesta necesaria. No es un tema de ahora. Yo entro en el año 2007 en este ayuntamiento, y las tres primeras reivindicaciones que planteamos fueron: el autobús, que la gente que de alguna forma tuviera una incidencia tuviera un piso garantizado, y que Musika Eskola se

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

trasladara del sitio donde estaba.

Lehenengoa bete da, nire ustez. Udalak bospasei etxebizitza egokitu ditu mota horretako beharretarako; Musika Eskola dagoen lekuan dago; eta autobusa falta zitzaigun. Eta, antza denez, gai honen lehen oinarriak jartzeko unea heldu da.

Yo creo que la primera, hay cinco o seis viviendas puestas por el ayuntamiento para necesidades, Musika Eskola donde está, y nos faltaba el autobús. Y parece ser el momento en el cual vamos a poner los primeros raíles al tema.

Soil-soilik gogoratu, ezen, 2007tik 2011ra bitartean, Hamaikabaten eta EAJren gobernuaren garaian, Hondarribitik La Marina Portu Auzoarekin beste loturarik ez zegoela, eta Basarritar etorbidearen inguruan ez zegoen autobusik. Une hartan, 2007an, Basarritar etorbidean jarri zen abian. Garai hartan nik esaten nuen hura ez zela nahikoa; hala da, baina, azken finean, Aldundiak hartutako erabakia izan zen, eta horrelaxe geratu zen.

Simplemente, recordar que desde el 2007 al 2011, durante el gobierno de Hamaikabat y el PNV, hubo un momento en el que desde Hondarribia solo se conectaba a la Marina, y no había autobús por la parte de Basarritar. En ese momento, se pudo en funcionamiento Basarritar, en 2007. Es verdad que yo entonces decía que no era suficiente, pero al fin y al cabo la Diputación así lo estableció, y así fue establecido.

Garai hartan beste arazo bat ere bazegoen, batez ere baserrietan bizi zirenen kasuan, zenbaitetan beharrezkoa izaten baitzen jendea batetik bestera eramatea, adibidez, adinekoak eramatea, batez ere anbulatoriora joateko, eta abar, eta taxi sistema erabiltzen zen. Gaur egun, Behemendiren bitartez, sistema hori finkatuta dago, eta horretarako erabiltzen da gehienbat.

En aquel momento también había un problema, sobre todo para la gente de caseríos, sobre todo por el tema de traslado de gente necesitada, de gente mayor, sobre todo por el tema del ambulatorio, y se utilizaba el sistema taxi. Hoy en día, a través de Behemendi, ese sistema está consolidado y en este momento funciona para esta cuestión.

2021eko uztailean, Hondarribia udalerrian aurrerapauso nabarmena eman zen, hiriko autobus zerbitzua martxan jarri zenean; izan ere, udalekotze espedienteari eman zitzaion hasiera, eta horrek bideragarritasun azterketarekin izan zuen jarraipena. Une hartan, Talde Sozialistak mozio bat aurkeztu zuen, izapideak arintzeko eskatuz, zerbitzua 2023rako abian egon zedin gure hirian.

En julio de 2021, el entorno de Hondarribia dio un paso adelante con la puesta en marcha del servicio de autobús urbano con inicio de expediente de municipalización que continuó con el estudio de viabilidad. En aquel momento el Grupo Socialista presentó una moción, donde se solicitaba la agilización de las gestiones con el fin de que para el año 2023 se pusiera en marcha el servicio en la ciudad.

Azkenik, 2024ko ekainaren 25ean, batzorde hori martxan jarri da.

Finalmente, el 25 de junio de 2024, se ha puesto en marcha esta comisión.

Sozialistentzat, hiri garraioa funtsezkoa da; herritar guztiok komunikabide kolektiboen bidez mugitzeko aukera izateak, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik, isurpenak murrizten laguntzen du; isurpenak minimora jaisten baitira. Kostu txikiko zerbitzu baten aldekoak gara, bai eta Mugi txartelaren onurak aprobetxatzearen aldekoak ere.

Para los socialistas el transporte urbano es un tema fundamental, la posibilidad de que todos los ciudadanos podamos movernos en medios colectivos favorece, desde el punto de vista social y medioambiental, la reducción de emisiones, con emisiones mínimas. Somos partidarios de apostar por un servicio de coste reducido y con el beneficio de la tarjeta Mugi.

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

Hiriko autobus zerbitzua martxan jartzea proposatzean, bi gogoeta egiten ditugu, eta prezio murriztuak ezartzearen aldekoak garela eman nahi dugu aditzera; gainera, 20 minutuko maiztasunak edo zerbitzuak proposatzen ditugu. Bestalde, izapideak egitean, alderdi tekniko batzuk hartu beharko dira kontuan. Alderdi edo kontsiderazio tekniko horiek EAJk ere aipatu ditu eta finantzaketari buruzko gaia jasotzen duen idazkian daude.

Realizando la propuesta de aprobación de la puesta en marcha del servicio de autobús urbano, hacemos dos consideraciones orientadas a manifestar que somos partidarios de establecer unos precios reducidos, además de que la permanencia sea de estancias de 20 minutos o servicios. Y que, en la tramitación, se deberá de tener en cuenta algunas consideraciones técnicas. Digo consideraciones técnicas, que ya ha mencionado el PNV, y que están en ese escrito de la parte financiera.

Nolanahi ere, proposamen hau onestearen alde gaude.

En todo caso, somos partidarios de aprobar esta propuesta.

Urrats hau erabakigarria dela uste dut; izan ere, Hondarribian, gure ustez, funtsezko bi gai daude: etxebizitzaren gaia eta garraioaren gaia. Jendeak garraio publikoa behar du lanera joateko; eta ez bakarrik lanera joateko; adibidez, adineko jendeak ere behar du: adin jakin batera iristen garenean, gidabaimena kentzen digutelako. Eta orduan ea nola mugitzen zaren hirian. Beraz, egoera jakin batzuetan mugikortasuna ezinbestekoa da. Nik hala uste dut, behintzat.

Yo, creo que en Hondarribia, con este paso decisivo, para nosotros hay dos elementos fundamentales que son el tema de la vivienda y el tema del transporte. La gente que sale a trabajar necesita un transporte público, y no solo a trabajar, incluso la gente mayor, porque llegamos a ciertas edades y nos quitan el carné. Y a ver cómo te mueves en la ciudad. Es decir, que hay situaciones en las que la movilidad se establece. Entonces, yo creo que es fundamental.

Horregatik, bere garaian, guk, honetaz guztiaz gain, eta hemen esaten dut, eta Bidasoaldeko Lurralde Plan Sektorialak ere esaten du, badago hirugarren elementu bat: Topoaren gaia, Irungo tranbiaren gaia; eta gai hori, nolabait esanda, gure ustez, planteatu beharko litzatekeen hurrengo gaia behar luke izan.

Por eso, en su día, nosotros, aparte de todo esto, y lo digo aquí, incluso en el PTS del Bidasoaldea, aparece un tercer elemento, que es el tema del Topo, del tranvía de Irún, y que, de alguna forma, para nosotros sería la siguiente cuestión que se tendría que plantear.

Nolanahi ere, gaur garraioaz hitz egin behar da, eta guri urrats hau funtsezkoa dela iruditzen zaigu; beraz, ea urte amaierarako edo datorren urterako autobus zerbitzu hau martxan dagoen. Nolanahi ere, ikusiko dugu nola funtzionatzen duen eta nolako denborak ezartzen diren; eta, behin martxan jarrita, zerbitzuak garatu ahala, joango gara gauzak hobetzen.

En cualquier caso, hoy, a lo que vamos, al tema de transporte, a nosotros nos parece un paso fundamental y que, de alguna forma, esperemos que para finales de año o el año que viene tengamos este autobús en marcha. En todo caso, veremos lo que da el funcionamiento y los tiempos en los que se desarrolla, y lo iremos mejorando en la medida que se estén dando los servicios.

Eskerrik asko.

Gracias.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko. Besterik? Bai, Garoa?

**EL SR ALCALDE:** Gracias. ¿Algo más? ¿Sí, Garoa?

**LEKUONA ANDREA:** Arratsalde on guztioi. EH Bildutik ere proposamen honen alde bozkatuko

**LA SRA LEKUONA:** Buenas tardes a todos y a todas. Desde EH Bildu también vamos a votar a

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

dugu. Guk ere ez daukagu inongo zalantzarik beharrezkoa daukagula herri mailan autobusa edo mikrobusa. Ulertzen dugu eta defizitarioa izango da, baina guk ulertzen dugu inbertsio bat dela, herritarrengan egiten den inbertsio bat. Bereziki kontutan hartuta autobusen erabiltzaile nagusienak emakumeak izaten direla, gazteak izaten direla. Beraz, honek ahalbideratuko digu gure herria ere bi mailetan, bi altueratan daukagun herri honetan konektibitate handiagoa edukitzea, bereziki goiko aldean bizi direnak, eta zentrora joateko ere zerbitzu gehiagorekin, baina baita ere institutura edo alde zaharrera.

favor de esta propuesta. No tenemos ninguna duda de que necesitamos un autobús o un microbús a nivel local. Será deficitario y lo entendemos, sí, pero también entendemos que es una inversión, una inversión en la ciudadanía. Especialmente teniendo en cuenta que las mujeres suelen ser las principales usuarias del servicio de autobús, y que suelen ser jóvenes. Por tanto, esto nos permitirá tener una mayor conectividad en nuestra localidad que, por cierto, se extiende a dos niveles o alturas diferentes, y en especial para quienes viven en la zona alta, y también para acudir al centro de la localidad con más servicios, así como para ir al instituto o al casco antiguo.

Nik uste guztiok bat egiten dugula teknikoki gehiago nahiko genukeela. Nik ez hogei minutu, zergatik ez bost minutuero? Nik uste dut hori ere, nahi izatekotan, gehiago nahiko genukeela. EH Bildutik ere, teknikoki gehiago nahiko genuke, baina ulertzen dugu baldin bada proiektu bat hainbeste urte daramana, bi aldiz gutxienez errebisatu direnak zenbakiak, proiektuak, behin eta berriz, hastea badagokigula, eta hori da orain egin dena. Paperean zegoen horri forma eman eta behingoagatik ere, Udalbatzara ekarri bai lehenengo puntu hau eta bai bigarrena.

Creo que a todos los grupos aquí presentes nos gustaría que técnicamente fuera más. No ya veinte minutos, ¿por qué no cada cinco? Y por querer, también nos gustaría ofrecer más. En EH Bildu también nos gustaría que técnicamente se ofreciera más, pero también entendemos que es un proyecto que viene de años atrás, que se ha revisado al menos dos veces, y que, por tanto, nos toca empezar a hacer números y realizar esos proyectos, y eso es lo que hemos hecho ahora. Para dar forma de una vez a lo que antes sólo estaba en papel, con el primer y segundo punto traído a esta Corporación.

Guk ulertzen dugu, alde batetik, honek ahalbideratuko digula eta bere justifikazio soziala dago, baina baita bere justifikazio berdea ere, energetikoa edo ingurumenarekin zerikusia daukana. Azken finean, gure herria oso dispertsatua dago, oso zabalean da, eta honek ahalbideratuko digu bestelako komunikazio bat gure eskutan edukitzea. Beraz, teknikoki gehiago nahiko genuke denok, baina errealista izanik, iruditzen zaigu lehenengo linea batekin hasi beharra dagoela. Gure herriaren izaerarengatik autobus batek ezin du hogeita hamar minutuero berak bi bueltak egin, bi autobus behar ditugu. Horregatik goaz 406.000 eurotara. Eskatzen digu inbertsio handi bat egitea honetan. Espero duguna da gauza hauek guztiak martxan jartzea, beste herri askok bezala, gero beste linea bat edukitzea, edo zentzu bakarrekoa ez izatea, beste aldera ere egitea… Gehiago nahiko genuke. Baina hasi beharra dago, eta uste dut gauzak ezin direla gehiago luzatzen utzi. Orduan, gure bozka ere, horregatik, aldekoa izango da.

Entendemos que ello nos va a permitir plasmar el proyecto, y ahí está su justificación social, pero también su justificación verde, energética o medioambiental. Al fin y al cabo, nuestra localidad es muy dispersa, es muy amplia, y este proyecto nos permite disponer de una comunicación diferente. Por lo tanto, técnicamente nos gustaría más a todos los grupos, pero, siendo realistas, nos parece que hay que empezar con una primera línea. Por la orografía de nuestra localidad un solo autobús no puede hacer dos viajes de ida y vuelta cada treinta minutos, necesitamos dos autobuses. Por eso el presupuesto se nos va a 406.000 euros. Lo cual nos exige hacer una gran inversión. Lo que ahora esperamos es que todo esto se ponga en marcha, como en otras muchas localidades, y más tarde añadir otra línea, o que no sea de un solo sentido, que se haga también hacia el otro… Quisiéramos más. Pero hay que empezar por algo, y creo que las cosas no se pueden seguir demorando por más tiempo. Por tanto, nuestro voto también será favorable al proyecto.

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

Eskerrik asko.

**ALKATE JAUNA:** Beno, nik ez daukat Josuk daukan memoria berdina 2007az geroztik, baina bai 2018. urtetik gogoratu nahi dut mugikortasun mailan gai honi buruz hitz egiten aritu ginela, lanketa bat ere egin zela eta bastante kopartekatua zen lanketa bat egin zela, baina ez legealdi hartan, ez 2019-2023ko lege-agintaldian, ez zen autobus zerbitzua martxan jarri. Ez zen lortu autobus zerbitzurik martxan jartzea, eta orain aurkezten dugun proiektuarekin, aldiz, ordu erdiroko maiztasun batekin arituko da lehendabiziko aldiz hiri barneko autobus zerbitzu bat Hondarribian martxan.

Hau da, ezer ez egotetik ohiko maiztasun batean hiri barnean garraio publikoan ibiltzeko aukera eskainiko da. Hori, noski, mugikortasun jasangarriaren kontzeptuarekin oso bat datorren proiektu bat da.

Urtean aurreikusten da 120.000 bidaia egingo direla, egin den txostenaren arabera. Hau da, aurretik genituenak baino 120.000 bidaia gehiago aurreikusten da autobus zerbitzu publiko honekin egingo direla.

Datuak nola eskuratu diren? Ez daukagunez aurretik zerbitzu bat martxan, ezin genuen herriko datu objektibo batzuk eduki, baina beste herri batzuetako aldaerak egin dira, eta aldaera horien arabera egin da Hondarribiko estimazio bat, noski, estimazio bat.

Aurretik bazegoen beste azterketa bat, baina askoz ere estimazio sakonagoa eta, gure ustez, errealistagoa den txosten bat egin da.

Aurkezten den proiektu honetan, aurrekontu osoa, lau urtetako ikuspegi batetik, 1.750.000 eurotik gorako aurreikuspen bat dauka. Hau da, Udal honetatik egingo dugun konpromisoa oso nabarmena dela iruditzen zait kopuru handietaz hitz egiten ari garelako.

Kontu-hartzailearen txostena aipatzen denean, noski, hitz egin behar dugu baita ere, eta lehen esan

Gracias.

**EL SR ALCALDE:** Bueno, yo no tengo la misma memoria que Josu en cuanto a si fue a partir de 2007, pero sí quiero recordar que desde 2018 hemos estado hablando de este tema de movilidad, se trabajó el tema y se hizo de una manera bastante compartida, pero el servicio de autobuses no se puso en marcha ni en aquella legislatura ni durante el mandato legal 2019-2023. No se consiguió poner en marcha ningún servicio de autobús, pero con el proyecto que ahora presentamos, por primera vez habrá un servicio de autobús urbano en Hondarribia que funcionará con una frecuencia de media hora.

Es decir, de no haber nada se pasará a ofrecer la posibilidad de desplazarse en transporte público dentro de la localidad con una frecuencia ordinaria. Esto, claro, es un proyecto muy acorde con el concepto de movilidad sostenible.

Según el informe elaborado, se prevén 120.000 viajes al año. Es decir, con este servicio público se prevén hacer 120 viajes más de los que anteriormente ya teníamos.

¿Cómo se han conseguido los datos? Como no teníamos un servicio puesto en marcha con anterioridad, no podíamos contar con unos datos objetivos de la localidad, pero se han confrontado con otros datos similares de otras localidades y en función de esas variantes se ha hecho una estimación para Hondarribia; claro, una estimación.

De antes ya había otro estudio, pero ésta es una estimación de mucho más calado, creemos, y se ha elaborado un proyecto más realista.

En el proyecto presentado, el presupuesto total, desde una perspectiva cuatrienal, tienen una previsión de más de 1.750.000 euros. Es decir, me parece que el compromiso que vamos a adquirir desde este Ayuntamiento es muy evidente, porque estamos hablando de grandes cantidades.

Cuando se menciona el informe del interventor, claro, también debemos hablar, y ya antes lo he

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

dut, epe luzera begira, egonkortasun finantzario baten ikuspegi batetik badaudela zalantzak. Bere irizpenaren arabera, planteatu beharko litzake maiztasuna handitu baino maiztasuna murriztea edo ordutegiak murriztea. Hori da, neurri batean, ez duguna ikusten. Ikusten duguna da ordutegi zabal batekin aukera ematea astelehenetik igandera autobus zerbitzua martxan egotea. Baina estimazioak dira. Berriro ere errepikatuko dut. Estimazioak dira.

Lehen aipatu dugu bilatzen den beste aberastasun bat ere intermodalitatearena ere dela. Uste dut oso garrantzizkoa dela intermodalitatea sartzea kontzeptu honetan. Saiakera egiten da hainbat puntutan, ez puntu bakarrean, baizik eta hainbat puntutan, beste herriekiko autobus zerbitzuekin elkarlotura izatea, eta ibilgailu partikularra ez erabiltzea ahalbidetzeko saiakera potente bat egitea aurreikusten da.

Landu den beste aldagai bat da Gipuzkoako Foru Aldundiko arloko diputatuarekin hitz egitea. Garraio publikoaren arloko diputatuarekin hitz egitea. Elkarlanean herritarrentzat hobekuntza bat lantzea bilatu da. Foru Diputatuak, PSEkoa kasu honetan ere, sintonia onean agertu da egiten zen proposamenarekin.

Gehiago gustatuko litzaigukeela? Garoak esan duen bezala, bai. Foru Aldundiari, Udalari, gehiago gustatuko litzaigukeela? noski. Niri, metroaren pareko zerbitzu bat izatea gustatuko litzaidake, hainbat lekutan hiru minuturoko maiztasunarekin. Itxoin behar izatea inori ez zaigulako gustatzen. Baina, ditugun baliabideekin, Hondarribiko Udalak egiten ari den esfortzua errekonozitzekoa da.

Aipatu da kontu-hartzailearen txosten hori, eta uste dut hor oso nabarmen gelditzen dela egiten ari garen saiakera oso potentea dela. Baliabideak lortzeko gomendioa egiten du, hori ez da aipatu hemen, baina txosten horretan baliabide gehiago lortzeko gomendioa egiten du. Iraunkortasunean zerbitzu honek bidea izateko. Horretan jardun beharko dugu, noski. Baina, gauden momentuan, autobus zerbitzu urbano bat edukitzea da lehenetsi duguna. Martxan jarri nahi dugu, ez dugu gehiago atzeratu nahi. Aipatu da gure helburua izango litzakeela urte amaiera edo urte hasiera artean. Egin behar diren

dicho, de que, a largo plazo, hay dudas desde la perspectiva de una estabilidad financiera. Según su criterio, debería plantearse, más que aumentar la frecuencia, reducirla o reducir horarios. Eso es lo que, en cierta medida, no vemos claro. Esto es, en parte, lo que no vemos. Sin embargo, vemos factible que con un horario amplio se permita que de lunes a domingo esté operativo el servicio de autobús. Pero son estimaciones. Lo repito de nuevo. Son estimaciones.

Ya hemos mencionado anteriormente que otro aspecto valioso que se busca conseguir es la intermodalidad. Creo que es muy importante introducir la intermodalidad en este concepto. Se intenta interconectar con otros puntos, no con un solo punto, sino con varios puntos, es decir, con los servicios de autobús de otras localidades; y se prevé un potente intento de evitar el uso del vehículo privado.

Otra variable que se ha trabajado es hablar con la diputada del área de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Hablar con la diputada del área de transporte público. Se ha buscado trabajar conjuntamente una mejora para la ciudadanía. La diputada foral, en este caso también del PSE, se ha mostrado en buena sintonía con la propuesta.

¿Que nos gustaría más? Como ha dicho Garoa, pues sí. ¿Que a la Diputación y al Ayuntamiento le gustaría ofrecer más? Por supuesto. A mí me gustaría tener un servicio equiparable al metro, con una frecuencia de tres minutos en varios puntos. Porque a nadie nos gustar esperar. Pero, con los recursos que tenemos, el esfuerzo que está haciendo el Ayuntamiento de Hondarribia es digno de aplauso.

Se ha comentado ese informe del interventor, y creo que ahí queda bien claro que el esfuerzo que vamos a hacer es realmente potente. Recomienda obtener recursos, cosa que no se menciona aquí, pero en ese informe recomienda conseguir más recursos. Para que este servicio puede llegar a ser sostenible. Tendremos que dedicarnos a ello, claro. Pero, en el momento en que estamos, lo que hemos priorizado es disponer de un servicio urbano de autobús. Queremos ponerlo en marcha, no queremos retrasarlo más. Se ha dicho que nuestro objetivo sería entre finales o principios de



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

tramiteen arabera. Urte amaiera edo 2025eko urte hasieran, herri mailako autobus zerbitzu bat martxan edukitzea da daukagun helburua. Horretarako, martxan jarri behar dugu. Martxan gaude, eta ahalbidetuko dugu, ez baldin bada abenduan, edo urtarrilean edo otsailean hiri barneko autobus zerbitzu bat martxan izatea.

Apustu sendoa daukagu.

Bukatzeko, esango dut politikaren gauzak. Foru Aldundian gauza bat defendatzen den bitartean, hau da, Hondarribitik Irunera edo Hondarribitik Donostiarako maiztasunak jaistea defendatu den bitartean, Hondarribiko Udalean kontratazio hau egiteko garaian eskatzen dena da maiztasunak handitzea. Hori ez dago beste ulertzeko modurik politika gauzak direla baino. Beraz, nik transmititu nahi dudana da Hondarribiko Udaletik apustu sendo bat egingo dela. Eskertzekoa da urrats honetan udal talde guztien aldeko bozka izatea, horrek indarberritzen gaituelako proiektuarekin jarraitzeko, baina, baita ere, mahai gainean eduki behar dugu, eta oso garbi jarri behar dugu badituela muga batzuk, zailtasun batzuk ere eragingo dituela, bereziki ekonomikoak diren zailtasunak, etorkizunera begira, eta, horretarako, bilatu beharko ditugula baliabide hau etengabea izateko beharrezkoak diren formatuak. Noski, ez da itxia izango. Abiatzen den honetan, etorkizunean egin daitezkeen hobekuntzak datu zehatzak ditugunean, noski, baloratu egingo dira datu horiek guztiak eta ezar daitezkeen hobekuntza guztiak ezarriko direnaren konpromisoa adierazi nahi dut.

Beraz, ongi iruditzen bazaizue, bozketara pasako gara?

Aldeko bozkak? Aho batez onartua.

**2.-GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZARA ATXIKITZEKO PROPOSAMENA.**

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzara atxikitzeko proposamenari dagokion espedientea aztertu ondoren.

año. En función de los trámites a realizar. Nuestro objetivo es poner en marcha un servicio de autobús a nivel local para finales de año o principios de 2025. Para ello debemos ponernos en marcha. Ya lo estamos, y ahora vamos a hacer posible que este servicio de autobús urbano esté disponible, si no para diciembre, sí para enero o febrero.

Nuestra apuesta es firme.

Para terminar, hablaré de asuntos políticos. Mientras en la Diputación se defiende una cosa, que es bajar las frecuencias de Hondarribia-Irun u Hondarribia-Donostia, lo que el Ayuntamiento de Hondarribia pide a la hora de realizar esta contratación es precisamente aumentar esas frecuencias. Esto no se puede entender si no es desde la esfera de la política. Por tanto, lo que quiero transmitir es que desde el Ayuntamiento de Hondarribia se va a hacer una apuesta firme. Es de agradecer que en esta fase contemos con el voto favorable de todos los grupos municipales, porque eso nos refuerza de cara a continuar con el proyecto, pero también debemos tener encima de la mesa, y dejarlo bien claro, que todo esto tiene unos límites y que va a generar unas dificultades, especialmente económicas, de cara al futuro, por lo que tendremos que buscar los formatos necesarios para lograr la durabilidad de este recurso. Claro, no será un proyecto cerrado. En este inicio, y cuando tengamos datos concretos sobre las posibles mejoras a realizar, se valorarán todos esos datos, cómo no, y desde aquí quiero expresar nuestro compromiso respecto a las mejoras que puedan llevarse a cabo en el futuro.

Por tanto, si les parece bien, ¿pasamos a las votaciones?

¿Votos a favor? Aprobado por unanimidad.

**2.-PROPUESTA DE ADHESIÓN A LA AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA.**

Examinado el expediente relativo a la propuesta de adhesión a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa.

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

Udal Kudeaketa batzordearen 2024ko irailaren 19ko diktamena ikusi ondoren.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Aldeko botoak: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (1) eta EH Bildu (1).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** bertaratutakoen aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

**LEHENENGO.-"**Consorcio Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa-Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoa" partzuergoan sartzeko eskaera onartzea, partzuergoaren estatutuetan ezarritako prozedurari jarraiki.

**BIGARREN.-**Erabaki hau Gipuzkoako Garraio Agintaritzari jakinaraztea, bere gobernu-organoek beharrezko erabakiak har ditzaten Hondarribiko Udala Partzuergoari atxikitzeko.

**HIRUGARREN.-**Alkatetzari ahalmena ematea Udala Partzuergoan sartzeko beharrezkoak diren dokumentuak kudeatu eta sinatzeko.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Honekin, bigarren puntura pasako gara. Lotura zuzena duen puntua da. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzara atxikitzeko proposamena da eztabaidatuko duguna. Hau zer da? Ba, Hondarribiko hiri barneko autobus zerbitzua martxan jartzen dugunerako, lehen san dudan bezala, lehenengo puntuan aipatu dudan bezala, autobusaren tarifak eta zerbitzua arautzeko proiektu bat ere onartu behar ditugu nahita nahi ez.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren ordezkariekin hainbat elkarrizketa izan ditugu, eta partzuergo horretan sartzeko aukeraz jardun gara udal honetan. Gipuzkoako bidaiarien garraio zerbitzua hobetzeko saiakera erakunde publikoetatik Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza sortu zen. Helburu nagusia Gipuzkoa osoan garraio eredu iraunkorreko sistema baten bidez integratzea izan zen. Besteak beste, zerbitzuak, sareak eta tarifak

Visto el dictamen de la Comisión de Gestión Municipal de 19 de septiembre de 2024.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Votos a favor: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (1) y EH Bildu (1).

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA:**

**PRIMERO.-** Aprobar la solicitud de incorporación al "Consorcio Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa-Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoa" de conformidad al procedimiento establecido en sus estatutos.

**SEGUNDO.-**Notificar el presente acuerdo a la Autoridad Territorial de Transportes de Gipuzkoa para que sus órganos de gobierno adopten los acuerdos necesarios para hacer efectiva la adhesión del Ayuntamiento de Hondarribia al Consorcio.

**TERCERO.-** Facultar a la Alcaldía para la gestión y firma de cuantos documentos sean necesarios para la incorporación del Ayuntamiento al Consorcio.

Intervenciones en relación al acuerdo:

**EL SR ALCALDE:** Con esto, pasamos al segundo punto. Este punto está conectado con el anterior. Lo que vamos a debatir es la propuesta de adhesión a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. ¿Qué es este punto? Pues bien, para cuando pongamos en marcha el servicio de autobús urbano de Hondarribia, como ya he comentado anteriormente en el primer punto, debemos aprobar también un proyecto que regule las tarifas y el servicio de autobús.

Hemos mantenido diversas conversaciones con representantes de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, y en este Ayuntamiento hemos hablado sobre la posibilidad de entrar en ese consorcio. Del intento de mejora del servicio de transporte de viajeros de Gipuzkoa nació, en el seno de las instituciones, la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. Su principal objetivo era interconectar toda Gipuzkoa a través de un

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

koordinatuta izan daitezen sustatu eta bultzatzea du xede. Garraioaren erabilera bultzatzea eta suspertzearekin batera, eta, ziurrenik garrantzitsuena, erabiltzailearen eskura eskaintza hobea jartzea da helburua.

sistema modelo de transporte sostenible. Para ello era necesario fomentar e impulsar la coordinación de servicios, redes y tarifas, entre otras cosas, con la potenciación y revitalización del uso del transporte, y probablemente lo más importante, poniendo a disposición del usuario una mejor oferta.

Baina, nola sar gaitezke Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza honetan? Ba, udalak eskaera egin behar du. Gaur bozkatuko duguna da eskaera hori egitea, eta horretarako, Udalbatza honen gehiengo osoaren bozkak beharko ditugu. Behin eskaera egitea adosten baldin badugu, agintaritza horren batzar nagusian aztertu egingo da gure eskaera eta batzar nagusi horrek erabakiko du egokia den ala ez Partzuergo horretan sartzea Hondarribiko Udala. Sartzea erabakitzen badute, espero dugu horrela izatea, ondoren, onartu beharko ditugu Partzuergoaren estatutuak, Partzuergorako ordezkariak izendatu beharko ditugu, eta abar.

Pero, ¿cómo podemos entrar en esta Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa? El ayuntamiento tiene que hacer la petición. Hoy vamos a votar que se haga esa petición, y para ello necesitaremos los votos de la mayoría absoluta de esta Corporación. Una vez acordada la solicitud, en la asamblea general de dicha autoridad se estudiará la misma y dicha asamblea decidirá si procede o no la incorporación del Ayuntamiento de Hondarribia en dicho Consorcio. Si acuerdan que entre, y esperemos que así sea, después tendremos que aprobar los estatutos del Consorcio, nombrar a quienes vayan a representarnos en el Consorcio, etcétera.

Beraz, gaur proposatzen dena da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzara atxikitzeko eskaera luzatzea.

Por tanto, lo que hoy se propone es realizar la solicitud de adhesión a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa.

Norbaitek zerbait esateko?

¿Alguien tiene algo que decir?

**SILANES JAUNA:** Bai, lehen aipatu duzu esfortzuarena eta. Hasieran izango da esfortzu gehiago ekonomikoki, DGG sistema honetan sartzea, baina gauza onak ere ekarrik ditu, zuk esan duzun bezala, aho batez nik uste dut onartuko dugula, bonifikazioak eta tarifak, eta lehen Garoak aipatutako goiko auzoak lotzeko, Irunekin adibidez edo Donostiakin adibidez, bonifikazio horien bidez, gehiago erabiliko dugula uste dugu. Zorionez, beste pauso bat espediente honetan.

**EL SR SILANES:** Sí, ya antes ha comentado el esfuerzo a realizar. Al principio será más un esfuerzo económico, entrar en el sistema DGG, pero también traerá cosas buenas, tal y como usted ha dicho, y creo que lo vamos a aprobar por unanimidad, y habrá bonificaciones y tarifas, y también la conexión con los barrios altos que ha comentado Garoa, y gracias a esas bonificaciones creemos que utilizaremos más el servicio. Afortunadamente, un paso más en este expediente.

**ALKATE JAUNA:** Josu?

**EL SR ALCALDE:** ¿Josu?

**ALVAREZ JAUNA:** Nire ustez, horren parte izateak (…) erakunde horren parte izateak eta erakunde horri atxikitzeko proposamena onesteak, funtsean, Aldundian eta beste estamentu batzuetan egiten ari diren politika guzti horiek dakartzaten onura guztiez baliatzea ekarriko digute. Garraio politikak eta gaur egungo garraio politika horien inguruan dauden asmoak, adibidez, 12 urtetik beherako pertsonei doan bidaiatzeko aukera

**EL SR ALVAREZ:** Yo creo que el que nosotros, de alguna forma, formemos parte (…) y nos adhiramos a lo que es la propuesta de adhesión, nos comporta fundamentalmente en el sentido de los beneficios que pueda suponer todas las políticas que se están realizando por parte de Diputación y por otros estamentos, en este caso. Las políticas, de alguna forma, y las intenciones en política de transporte se están produciendo, por



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

eskaintzea… Beraz, politika batzuk globalki ezartzen hasiak dira; azken finean, garraioa funtsezko zerbait da; izan ere, herritarrak gero eta gehiago joaten dira hirietara lan egiteko, eta ahalik eta gehien merkatu behar zaizkie joan-etorriak; edo adinekoek, esaterako, toki batetik bestera joateko, joan-etorriak egiteko, eurek ere behar dituzte tarifa bereziak eta hobariak, haien poltsikorako kaltegarriegi gerta ez dadin.

ejemplo, la posible implantación de la gratuidad para personas de menos de 12 años,… Es decir, hay políticas que se están estableciendo de forma global, porque, al final, el transporte es un elemento fundamental en el sentido de que las personas cada vez que trabajan, en este caso, se desplazan a las ciudades y requieren de un coste que sea el mínimo posible, e incluso, las personas de edad, para poderse mover, que no supongan un perjuicio importante para el bolsillo.

Nire ustez, Aldundiak eta beste erakunde batzuek, esaterako, Espainiako Gobernuak kasu honetan, ezarrita dauzkaten politika horiek guztiak guretzat ere onuragarriak izan daitezke, guk ere geure prezio eta politika propioak izateaz aparte. Beraz, herritarrenganako elkartasun politika honekin bat egitea beste biderik ez dagoela uste dut, eta ziur nago kate horren barruan egoteak onurak baino ez dizkigula ekarriko. Hau da, funtsean, onurak ekarriko dizkigu, argi baitago garraioaren eta mugikortasunaren gaia funtsezko elementua dela herritarren bizitzarako; eta ez bakarrik ekonomiaren ikuspegitik, ingurumenaren ikuspegitik ere bai; izan ere, baliteke mundu honetan egiten ari garen guztia gure kalterako izatea, ez baldin badugu nolabaiteko erremediorik jartzen, eta hori hala delako frogak ikusten ari gara egunero. Hori dela eta, nik uste dut norabide onean goazela, eta Gipuzkoako garraioaren lurralde agintaritzari atxikitzeko proposamenarekin ados gaude.

Yo creo que estas políticas que se están marcando por parte, en este caso, tanto de la Diputación como de otras instituciones, en este caso el Gobierno de España, al final, nosotros también, de alguna forma, nos podemos sentir beneficiados, más allá de que también nosotros hagamos nuestros propios precios y políticas. Por lo tanto, yo creo que estamos abocados a esta política de solidaridad con, en este momento, con los ciudadanos, y el que estemos en esta cadena lo que nos aporta son beneficios. Es decir, fundamentalmente beneficios, porque, evidentemente, el tema del transporte y la movilidad es un elemento esencial en la vida de los ciudadanos que, de alguna forma, no solo desde el punto de vista económico, sino incluso desde el punto de vista medioambiental, porque se está demostrando que este mundo, si no ponemos remedio, igual al final, todo lo que estamos haciendo va en perjuicio. Por tanto, yo creo que estamos en la buena dirección, y estamos de acuerdo con entrar a formar parte de lo que es la propuesta de adhesión a utilización territorial de transporte de Gipuzkoa.

**ALKATE JAUNA:** Garoa?

**EL SR ALCALDE:** ¿Garoa?

**LEKUONA ANDREA:** Bai, gure aldetik ere, zalantzarik ez. Finean garraio publikoko eskaintza bat egin nahi baldin badugu ezin dugula islatuta geratu Hondarribian eta Mugi sisteman sartu behar garela.

**LA SRA LEKUONA:** Sí, por nuestra parte también sin lugar a dudas. Al fin y al cabo, si queremos hacer una oferta de transporte público, no podemos quedarnos aislados en Hondarribia, necesitamos entrar en el sistema MUGI.

Mahai gainean jarri nahiko genukeena da ez bakarrik tarifa aukerengatik, baizik eta azken finean Garraio Agintaritzak daukalako garraio publikoaren jakintza, eta bertan, bestelako herrien esperientziez ere ikasi ahalko dugulako, bertan ere proiektuak aurrera eramaten direlako, eta horrek saretuta horrelako erronka baten aurrean egitea iruditzen

Y eso nos gustaría ponerlo sobre la mesa, no sólo por las posibilidades tarifarias, sino porque al fin y al cabo es la Autoridad del transporte la que tiene un verdadero conocimiento del transporte público, y podemos aprender de las experiencias de otras localidades donde también se llevan a cabo proyectos similares, todo lo cual nos parece muy



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

zaigulako ere interesgarriagoa dela. Mundu honetan bakarrik ibiltzea baino hobeto delako eskutik bidea egitea. Beraz, alderdi horretatik, gure aldetik ere, ados.

interesante ante un reto de esta envergadura. Porque mejor que andar solo en este mundo es hacer camino juntos. Por lo tanto, en ese sentido, por nuestra parte, también de acuerdo.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko. Bozketara pasako gara beraz?

**EL SR ALCALDE:** Gracias. Así pues, ¿pasamos a la votación?

Aldeko bozkak? Aho batez onartua.

¿Votos a favor? Aprobado por unanimidad.

**PERTSONALA**

**PERSONAL**

**3.-2024KO SOLDATA IGOERARI BURUZ.**

**3.-EN RELACIÓN CON AUMENTO RETRIBUTIVO PARA EL EJERCICIO 2024.**

2024ko soldata igoera onartzeko proposamenari dagokion espedientea aztertu ondoren.

Examinado el expediente relativo a la propuesta de aprobación de aumento retributivo para el ejercicio 2024.

Udal Kudeaketa batzordearen 2024ko irailaren 19ko diktamena ikusi ondoren.

Visto el dictamen de la Comisión de Gestión Municipal de 19 de septiembre de 2024.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Aldeko botoak: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (1) eta EH Bildu (1).

Votos a favor: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (1) y EH Bildu (1).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** bertaratutakoen aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-** Erakundeko funtzionarioen ordainsarietan eta lan-kontratuko langileen soldata-masan ehuneko 2ko soldata-igoera finkoa aplikatzea, 2024ko urtarrilaren 1eko datarekin.

**PRIMERO.-** Aplicar el aumento retributivo fijo del 2 por ciento en las retribuciones del personal funcionario de la Entidad, así como en la masa salarial del personal laboral, con fecha de efecto de 1 de enero de 2024.

**BIGARREN.-**Toki-korporazioetako kideen eta behin-behineko langileen soldata mailak ehuneko berean igotzea, baimentzea.

**SEGUNDO.-** Autorizar el incremento de los niveles salariales de los/las miembros de las Corporaciones Locales y del personal eventual en el mismo porcentaje.

**HIRUGARREN.-** 2024an beste % 0,5eko igoera gehigarri bat egiteko aukera aurreikustea, 2022., 2023. eta 2024. urteetako KPI akumulatuaren aldaketarekin lotuta. Ildo horretan, Ministro Kontseiluaren akordio bidez horri buruz xedatutakoari jarraituko zaio.

**TERCERO.-** Prever la posibilidad de realizar en el año 2024 un nuevo incremento adicional del 0,5 % relacionado con la variación del IPCA de los años 2022, 2023 y 2024. En este sentido, se estará, en su momento, a lo que al respecto se disponga mediante Acuerdo del Consejo de Ministros.

**LAUGARREN.-**Alkateari ahalmena ematea erabaki

**CUARTO.-** Facultar al alcalde para la realización



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

hau gauzatzeko eta betetzeko behar diren izapide guztiak egin ditzan.

de cuantos trámites sean necesarios para la ejecución y cumplimiento del presente acuerdo.

**BOSTGARREN.-**EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteari eta Langile batzordeari honako akordioa jakinaraztea.

**QUINTO.-**Dar traslado del presente acuerdo tanto a EUDEL-Asociación de Municipios Vascos como a la Junta de Personal.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

Intervenciones en relación al acuerdo:

**ALKATE JAUNA:** Eta, ondorengo hiru puntuak pertsonal saileko gaiak izango dira. Hirugarrena, 2024ko soldata igoerari buruzkoa.

**EL SR ALCALDE:** Y, los tres puntos siguientes serán temas relacionados con el departamento de personal. Tercero, sobre el aumento salarial de 2024.

Jakingo duzuen bezala, administrazio publikoko langileen soldata igoerak Estatu-kontuen legean arautzen dira normalean. 2024ko ekitaldiari dagokionean, Estatuko aurrekontuak prorrogatu egin ziren heinean, soldaten eguneratze hau Errege Dekretu baten bitartez arautu zen ekaina amaieran. Zentzu honetan, EUDELek ere, ekaina amaieran informazio zirkular bat bidali zuen Udal guztiei, ordainsariei dagokienean egon zitezkeen interpretazioak argitze aldera. Aipatutako Dekretuaren 6. puntuan jasotzen denaren arabera eta EUDELen irizpideen arabera, gaurkoan proposatzen duguna da, alde batetik, Udaleko funtzionarioen ordainsarietan eta lan-kontratuko langileen soldatetan % 2ko igoera onartzea urtarrilak 1eko atzeraeraginkortasun efektuarekin, korporazioko kideen eta behin behineko langileen soldata mailak ehuneko berean igotzea, eta, azkenik, INEren urteko datuak publikatzen direnean, beste % 0,5eko igoera bat aplikatzea 2024ko urtarrilaren 1eko atzeraeraginkortasunarekin baldin eta 2022, 2023 eta 2024ko KPIaren aldaketa-baturak urte horietako KPIaren igoera metatua gainditzen baldin badu. Ulertu da?

Como sabrán, los incrementos salariales del personal de la administración pública se regulan normalmente en la ley de cuentas del Estado. Respecto al ejercicio 2024, en la medida en que los presupuestos del Estado fueron prorrogados, esta actualización salarial se reguló mediante un Real Decreto de finales de junio. En ese sentido, EUDEL también envió a finales de junio una circular informativa a todos los Ayuntamientos para clarificar las posibles interpretaciones retributivas. De acuerdo con lo establecido en el punto 6 del citado Decreto y de acuerdo con los criterios de EUDEL, lo que proponemos a fecha de hoy es, por un lado, aprobar un incremento del 2 % en las retribuciones del funcionariado y del personal laboral del Ayuntamiento con efectos retroactivos desde el 1 de enero, un incremento de los niveles salariales de las y los miembros de la corporación y del personal eventual en el mismo porcentaje y, por último, tras la publicación de los datos anuales del INE, la aplicación de un nuevo 0,5 % con carácter retroactivo a 1 de enero de 2024, siempre que la suma de las variaciones del IPC de 2022, 2023 y 2024 supere el incremento acumulado del IPC en dichos años. ¿Se ha entendido?

Bai. Ez dakit galderarik duzuen.

Sí. No sé si tienen alguna pregunta.

Josu? Garoa?

¿Josu? ¿Garoa?

Beraz, bozketara pasako gara.

Por tanto, pasamos a la votación.

Aldeko bozkak? Aho batez onartua.

¿Votos a favor? Aprobado por unanimidad.

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

**4.-2024RAKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEARI BURUZKO PROPOSAMENA.**

2024rako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrendaren aldaketa proposamena aztertu ondoren.

2024ko irailaren 19ko Udal Kudeaketa batzordearen diktamena ikusi ondoren.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Aldeko botoak: 14, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6) eta EH Bildu (1).

Aurkako botoak: 0.

Abstentzioak: 1, PSE-EE-PSOE.

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** aldeko legezko gehiengo osoz, hauxe **ERABAKI DU:**

**LEHENENGO.-** 2024. urterako Plantilla Organikoaren aldaketa behin-behinekoz onartzea.

**BIGARREN.-** Udal honetako 2024. urterako Lanpostuen Zerrendaren aldaketa behin betiko onartzea, behin negoziazio kolektiboa gauzatua eta espedientean jasota dauden txostenean proposatutako aldaketekin.

**HIRUGARREN.-** Apirilaren 18ko 781/1986 LEDaren 127. artikuluaren eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. eta 51. artikuluen arabera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**LAUGARREN.-**Akordio hau Langile Batzordeari jakinaraztea.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Laugarren puntua, aldiz, 2024rako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda aldatzeari buruzko proposamena da.

Gaur proposatzen dena da lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoaren bereziki eguneraketa bat. Aldaketa hauen arrazoiak ezberdinak dira, baina

**4.-PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA PLANTILLA ORGÁNICA Y RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO PARA EL AÑO 2024.**

Examinada la propuesta de aprobación de la modificación de Plantilla Orgánica y Relación de Puestos de Trabajo para el año 2024.

Visto el dictamen de la Comisión de Gestión Municipal de 19 de septiembre de 2024.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Votos a favor: 14, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6) y EH Bildu (1).

Votos en contra: 0.

Abstenciones: 1, PSE-EE-PSOE.

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría absoluta legal favorable, **ACUERDA:**

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la modificación de la Plantilla Orgánica para el año 2024.

**SEGUNDO.-** Aprobar definitivamente la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo para el año 2024, con las modificaciones introducidas tras la negociación colectiva y los informes que constan en el expediente.

**TERCERO.-** De conformidad con el art. 127 del RDL 781/1986, de 18 de abril y arts. 45 y 51 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, ordenar su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**CUARTO.-**Dar traslado del presente acuerdo a la Junta de Personal.

Intervenciones en relación al acuerdo:

**EL SR ALCALDE:** El cuarto punto se refiere a la modificación de la plantilla orgánica y de la relación de puestos de trabajo para 2024.

Lo que hoy se propone es una actualización de la relación de los puestos de trabajo y de la plantilla orgánica en particular. Las causas de estos

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

bilatzen duten helburuak giza baliabideak modu egokian kudeatu eta antolatzea da. Hau da, gaur egun lanean dauden langileak eta plantilla organikoak zein lanpostuen zerrendan jasotzen direnak erlazio zuzenago bat izatea. Urratsak ematen ari gara.

cambios son diferentes, pero los objetivos que persiguen son la adecuada gestión y organización de los recursos humanos. Es decir, una relación más directa entre el personal actualmente en activo y las plantillas orgánicas y las establecidas en la relación de los puestos de trabajo. Estamos dando pasos.

Aipatzen nuen arrazoiak ezberdinak direla, izan ere, gutxienez, hiru aldagai ezberdinetatik jorratu delako lanketa proposamen hau. Alde batetik, lan arloko 75/2024 Epaia ikusita, non Udal honetan 2017tik azpikontratatu bezala lanean aritu den langile baten erreklamazioa onartzen duen, eta langilearen legez kanpoko lagapena izan dela aitortzen duen, langileak udal langilea izateak ere lehenesten duela idatzirik jaso dugu, eta ingurumen-teknikariaren plaza sortzea proposatzen da.

Mencionaba que las razones son diferentes, ya que esta propuesta de estudio se ha abordado, al menos, a partir de tres variables distintas. Por una parte, a la vista de la Sentencia nº 75/2024, de carácter laboral, en la que se acepta la reclamación de una persona que ha estado trabajando en este Ayuntamiento como subcontratado desde el año 2017, y se reconoce que se trata de una cesión ilegal del trabajador/a; se ha recibido un escrito en el que se indica que la condición de trabajador/a municipal es también prioritaria, y se propone la creación de una plaza de técnico/a ambiental.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzatik, ekainean jasotako idatzi bat kontutan hartuta, hainbat lanposturen eskakizunak eguneratu egin dira. Hala nola lanpostuan sartzeko titulu eskaerei dagokienak, sail batetik bestera mugitzekoak. Adibide bezala, ulertzeko, gure lanpostuen zerrendan Lizentziatura zen jasotzen zena, eta proposatzen dutena da Lizentziatura eta Gradu titulua ahalbidetu behar direla. Halako eguneraketa batzuk dira.

Por otro lado, desde el Gobierno Vasco se han actualizado las exigencias de varios puestos de trabajo, teniendo en cuenta un escrito recibido en junio. Como las correspondientes a solicitudes de titulación para el ingreso en el puesto de trabajo, y las de traslado de un departamento a otro. Como ejemplo, para entenderlo, en nuestra relación de puestos de trabajo lo que se recogía era la Licenciatura, y lo que proponen es posibilitar la Licenciatura y el título de grado. Ésas son algunas de las actualizaciones.

Eta, aurretik zeuden lanpostu batzuk egokitzea izango litzateke hirugarren arloa. Alde batetik, administrazio kontratazio eta erosketa bulegoburuaren kasuan, idazkaritzako administrari plaza izatera pasako da, gaur egun betetzen dituen eskakizunetara, azken finean, eta gainerako administrarien lan-baldintza baliokideak izango ditu. Beste aldetik, udaltzaingoan bazeuden bi kudeaketa laguntzaile plaza, inoiz bete ez zirenak. Horiek desegin eta udaltzaingorako bi administrari plaza sortzea proposatzen da. Oinarrizko administrazio unitateei dagozkien baldintza berak izango dituztelarik.

Y la tercera área sería la adecuación de algunos puestos preexistentes. Por un lado, en el caso de Jefe/a de Negociado de Contratación Administrativa y Compras, pasará a ser una plaza de Administrativo de Secretaría, en definitiva, a los requisitos que actualmente cumple, y tendrá unas condiciones laborales equivalentes a las del resto del personal administrativo. Por otro lado, en la policía municipal había dos plazas de auxiliares de gestión que nunca se habían cubierto. Se propone su disolución y la creación de plazas de administrativo/a para la policía local. Tendrán las mismas condiciones que las unidades administrativas básicas.

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

Espero dugu lehenbailehen horiek ere betetzeko aukera izatea.

Esperamos tener cuanto antes la oportunidad de cumplirlas también.

Ez dakit galderarik baduzuen. Bai, Kalixa?

No sé si tienen preguntas. ¿Sí, Kalixa?

**SILANES JAUNA:** Bai, eskerrik asko.

**EL SR SILANES:** Sí, gracias.

Beno, RPTaren beste moldaketa bat, eta begi onez ikusten dugu. 2022tik hasitako zenbait prozesuren inguruan ondorioak dira. Ezer baino lehen, txalotu pertsonal sailaren lana, azken bi urteetan batez ere, hari eta hari ari direlako, eta emaitzak hemen daude.

Bueno, otra adaptación del RPT, y la vemos con buenos ojos. Son conclusiones en torno a varios procesos iniciados en 2022. Antes que nada, aplaudir la labor del departamento de personal, sobre todo en los dos últimos años, porque han trabajado con ahínco en este tema, y ahí están los resultados.

Ondo aipatu duzu zein aldaketa dauden RPT honetan, baina azpimarratu nahiko genuke ingurumen-teknikariaren inguruan, epaile baten sententzia dela medio sortzen dela postu hau, beharrezkoa. Azken zortzi edo hamar urtetan lan asko egin da udaletxe honetan mugikortasun arloan, nahiz eta ingurumen sailaren barne egon. Kasu honetan, langile honen profesionaltasuna, jarrera, langile fina dela, txalotzekoa dela. Batzordean galdetu genituen zenbait zalantza mailaren inguruan, taldearen inguruan. Teknikoki azaldu zizkiguten genituen zalantzak. Erabakia teknikoen baldintzetan oinarrituta, logikoa denez, gure aldetik aurrera.

Ha comentado bien los cambios habidos en esta RPT, pero nos gustaría destacar que en relación al técnico/a de medio ambiente, este puesto, necesario, se crea por sentencia judicial. En los últimos ocho o diez años se ha trabajado mucho en este Ayuntamiento en materia de movilidad, a pesar de estar integrado en el departamento de medio ambiente. En este caso, la profesionalidad, la actitud de este/a trabajador/a, excelente, es digna de aplauso. En la comisión planteamos algunas dudas sobre el nivel, sobre el equipo. Nos aclararon técnicamente las dudas que teníamos. La decisión se basa en las condiciones del personal técnico, como es lógico, así que por nuestra parte, adelante.

Jarrai dezagun langile gehiago ekartzen udaletxera, eta horrela makinariak hobeto funtzionatuko du denontzat. Eskerrik asko.

Sigamos trayendo más personal al Ayuntamiento y así la maquinaria funcionará mejor para todos y para todas. Muchas gracias.

**ALKATE JAUNA:** Besterik? Josu?

**EL SR ALCALDE:** ¿Algo más? ¿Josu?

**ALVAREZ JAUNA:** Nik kontrako iritzia emango dut.

**EL SR ALVAREZ:** Yo igual pongo la nota discordante.

Hasiera batean, ez ditut hemen zehazki planteatu diren hiru gaiak gaitzetsiko, baizik eta zenbat absentzia edo hutsune planteatuko ditut, pertsonal sailean eta gauzatzen ari diren politiketan ikusten ditudanak, hain zuzen.

En principio no voy a criticar las tres cuestiones que se han planteado aquí en concreto, sino que, de alguna forma, voy a plantear algunas ausencias que veo yo en lo que es el trabajo por parte del departamento de personal y las políticas que se están llevando.

Egonkortze plana udal honetako gairik garrantzitsuenetako bat da, eta, zehazki, aurreko gobernu taldeak, hori egiteko garaian, plantilletako

El plan de estabilización es una de las cuestiones más importantes que este ayuntamiento y, en concreto, el antiguo equipo de gobierno a la hora

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

bitartekotasuna ezabatu du. Denok dakigu hor dagoen gaia dela, eta Europako Ekonomia Erkidegoak bitartekotasuna planteatzen duela; beraz, gure udala gai hori lantzen hasi zen.

de hacerlo, ha realizado la eliminación de la interinidad en las plantillas. Sabemos todos que es un tema que está ahí, y que la Comunidad Económica Europea plantea la interinidad y este ayuntamiento se puso a trabajar esta cuestión.

Hainbat azterketa egin dira dagozkien epaimahaiekin eta, gaur egun, nire aldetik, ez dut Dekretuez haraindiko informazio zehatzik kontu honetaz. Egiten ari direna dekretuetan ateratzen ari da, baina ez dago azalpenik; nik faltan botatzen dut langile batzordearen egoeraren azalpen zehatza. Faltan botatzen dut. Nik beti esan dut, ezen, batzuetan, politikan, langileriari buruzko gaietan, ez dela nahikoa “informazioa halako lekuan daukazu” esatea; ez, azaldu egin behar da, batez ere batzorde batean zaudenean, edo lantalde batean zaudenean, kasu honetan, udalean, gainerako zinegotziekin batera. Horrelako gaiak bateratu edo adostu ahal izateko. Nire aldetik, hutsune garrantzitsuak ikusten ditut hor.

Se han realizado varios exámenes con los tribunales correspondientes y, a día de hoy, por mi parte, no tengo ningún conocimiento pormenorizado más allá de los Decretos. Los Decretos están sacando lo que se está realizando, pero no hay una explicación, yo echo en falta de la comisión de personal una explicación pormenorizada de la situación. Lo echo en falta. Yo siempre he dicho que, a veces las cosas en la política, en temas de personal, más allá de decir tienes la información en tal sitio, no, hay que explicar, sobre todo cuando estás en una Comisión, o en un equipo de trabajo, en este caso, en el ayuntamiento, con el resto de concejales. Para poder compatibilizar o poder consensuar estas cuestiones. Por mi parte, encuentro ausencias importantes.

Aurkeztutako erreklamazioen eta errekurtsoen berri izan dugu, eta, kasu batzuetan, horiek hartzeko erabili diren oinarriekin nahiko kezkatuta gaude, batez ere udaltzaingoaren kasuan. Udaltzaingoan errekurtso batzuk aurkeztu direla uste dut, batzuek errekurtsoak aurkeztu dituzte, eta kasuren batean, arazoan bi lagapen egin dira; eta, nire ustez, oraindik ez da azalpenik eman. Sentitzen dut, baina horrela esan beharra daukat.

Se tiene conocimiento de las diferentes reclamaciones y recursos presentados, en algunos casos bastante preocupantes de las bases tomadas, sobre todo en la guardia municipal. Yo creo que en la guardia municipal hay una serie de recursos que han presentado, hay gente que ha presentado unos recursos, y en algún caso, hay dos cesiones en el mes de noviembre, en el cual, desde mi punto de vista todavía no ha habido una explicación. Lo siento, tengo que decirlo así.

Jakin badakigu euskara departamentuan ere arazo bat egon dela. Une honetan, euskara departamentuan, egonkortze plana dela eta, arduradunak erretiroa hartu beharko duela ikusi da, bere lanpostuari eusteko zailtasunak izango dituelako.

Se tiene conocimiento que en el departamento de euskera también ha habido un problema. En este momento, en el departamento de euskera, con todo lo del plan de estabilización, se ha encontrado con que el responsable, en este caso, se va a tener que jubilar porque se encuentra con que va a tener dificultades, incluso, para la permanencia de su puesto de trabajo.

Artxibozainaren gaia hor dago. Artxibozain lanpostua, egiten ari den azpikontrata bat da. Zentzu horretan, ez dago inongo lizitaziorik.

El tema del archivero está ahí. El archivero es una subcontrata que se está realizando. No hay una licitación en este sentido.

Liburutegiaren gaia; liburutegia ere hor dago. Liburuzaina poltsa batetik dator, baina ez dakit

El tema de la biblioteca, la biblioteca está también ahí. El bibliotecario viene de una bolsa, pero, en



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

plaza hori ateratzeko asmorik ba al dagoen, nolabait esanda.

fin, no sé si de alguna forma, en algún momento, se piensa sacar la plaza.

Lanpostuaren balorazioari dagokionez, udal honetako gobernu taldeak esan zuen helburu nagusietako bat zela udaleko lanpostu guztien balorazioa egitea, lanpostu guztiena. Gaur egun, bi aldiz egin dira bi proposamen, eta biak hutsik geratu dira. Ez dakit ba, bigarren urterako goaz eta ez dakit noiz planteatu ahal izango diren lanpostuen balorazioaren gaia eta atzeraeraginaren gaia. Agerian denez, urteak aurrera doazela ikusten dugu, urte bakoitza aurrera doa, eta, nahiz eta zuk balorazioa egin, gobernu taldeak ez badu hori aitortzeko konpromisorik hartzen, orduan ez dago atzeraeraginik, eta kasu hori ez da gertatuko.

Sobre la valoración de puestos de trabajo, en este ayuntamiento se dijo por parte del equipo de gobierno que uno de los objetivos fundamentales era la valoración de puestos de trabajo de todos los puestos del ayuntamiento. A día de hoy nos encontramos con que ha habido dos veces dos propuestas, y las dos han quedado desiertas. Yo no sé, ya llevamos para el segundo año y no sé en qué momento se va a poder plantear el tema de la valoración de puestos de trabajo y el tema de la retroactividad. Porque claro, nos encontramos que cada año que pasa, cada tiempo que pasa, aunque tú luego le hagas la valoración, si no hay un compromiso por parte del equipo de gobierno de reconocerlo, no hay retroactividad, no se va a dar el caso.

Plaza batzuen gaiari buruz, ea ba. Iragarki bat dago, Lanbidek egina; hau da, Lanbidek, Euskal Enplegu Zerbitzuak, enplegua sustatzeko zortzi plaza iragarri ditu. Zortzi plaza dira guztira: bi argiketari, gazteria-saileko administrari bat, zerbitzu orokorren zerbitzuko administratzaile bat, euskara saileko baliabide teknikari bat, baliabide teknikoen dinamizazioa egiteko beste teknikari bat, eta ingurumen teknikari bat edo zerbitzu teknikari bat. Nik zera azpimarratu nahi dut: Lanbidek horrelako laguntzak ezartzen dituenean plazen gaiarekin lotuta, langabeziaren gaiarekin lotuta, normalean, udaleko sektoreetara ez ezik, udalerriko gizarte sektoreetara ere bideratutako plazak izaten dira gehienbat, non atzematen baita enplegu zailtasunak daudela. Hau da, hemen, adibidez, itsasertzeko garbiketak egiteko plazak; baina, adin jakin batzuetatik aurrera… Niri, esaterako, errolda aztertzen aritu dira, eta, esaterako, Hondarribiko langabezia % 7 ingurukoa da, eta langabetu horien % 70etik gora 45 eta 50 urtetik gorako pertsonak dira. Lanbidek urtero diru kopuru bat jartzen du kolektibo horiei zuzentuta; eta Udalak beste diru ekarpen bat egiten du. Zentzu horretan, hor hutsune edo gabezia bat dagoela ikusten dut nik, baita sentsibilitate falta ere. Sentitzen dut horrela esan behar. Udalak elementu estruktural jakin batzuk estaliko ditu, bai, baina herritarrei begira, egoera honetan, gabezia bat ikusten dut nik hor. Eta barkatu, baina hala da. Nire iritzia da. E? (Hondo-zarata). Beno, gero azalduko duzu. Hori da nik gutxi

Sobre el tema de ciertas plazas, a ver. Hay un anuncio sobre el tema de sacar, por parte de Lanbide, ocho plazas de promoción de empleo de Lanbide, Servicio Vasco de Empleo. Ocho plazas que van desde dos electricistas, una administrativa de juventud, administrador de servicios generales, técnicos de medios del departamento de euskera, dinamización de medio técnico y un técnico de medio ambiente o servicios técnicos. Yo a lo que voy es que cuando Lanbide establece este tipo de ayudas para el tema de plazas, para el tema de desempleo, normalmente, eran plazas que fundamentalmente iban orientadas a sectores no tanto del ayuntamiento, sino sectores sociales de este municipio, en los cuales tuvieran dificultades de empleo. Es decir, aquí se ha dado, por ejemplo, limpiezas de litoral, gente que, de alguna forma, después de ciertas edades… a mí me están mirando el censo y, por ejemplo, el paro de Hondarribia, que es de entorno al 7%, el 70% de esa gente son de más de 45 y 50 años. A esos colectivos, se lleva dirigiendo un dinero todos los años por parte de Lanbide, y el ayuntamiento pone otra aportación. En este sentido, yo lo que veo es una ausencia y, de alguna forma, una falta de sensibilidad. Siento tener que decirlo. Se van a cubrir elementos estructurales por parte del ayuntamiento, pero de cara a la ciudadanía, en estas situaciones, perdona, es así. Es mi opinión. ¿Eh? (ruido de fondo). Bueno, luego lo explicas. Eso es un poco lo que yo estaba planteando. Ante



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

gorabehera planteatu nahi nuena. Horren aurrean, hemen planteatu diren gauzak ikusita, nik, jakina, ez dut aurka bozkatuko, baina abstenitzera noa, landu beharreko politikei buruzko azalpenik ez baitut aurkitzen denboran. Hortxe daude. Udal honetan aztertu beharreko zenbait gai aipatu gabe ditugu oraindik, langile batzordean ez baitut horien berririk izan, orain arte. Bai, dekretu bat atera da, zera esanez… baina ez. Beraz, sentitzen dut, baina egiten ari diren gauzekiko jarrera kritikoa dut, neurri batean. Aurka ere ez dut bozkatuko hala ere, onartu beharra baitaukat baduela halako balio bat, esaterako, enpresaren aurka auzitara jo behar izan duen langile baten lanpostua egonkortzea, eta abar. Iruditzen zait ezin dudala bozkatu egonkortze horren aurka edota administrazioaren ikuspuntutik beste lanpostu batzuk beteko dituztenen aurka. Hori ezin dut egin. Nolanahi ere, egiten ari diren gauzekiko nire jarrera kritikoaren berri eman behar dizuet, langileei buruzko gaian halako gardentasun falta dagoelako.

esto, yo creo que la cuestión es, ante las cuestiones que se han planteado, evidentemente yo no voy a votar en contra, me voy a abstener, porque, de alguna forma, no encuentro cierta explicación en el tiempo sobre las políticas que hay que llevarlas. Ahí están. Hay cuestiones que, en este momento están en el tintero en este ayuntamiento, pero que yo todavía no las he percibido de la comisión de personal. Sí, sale un Decreto diciendo… pero no. Por lo tanto, yo lo siento, pero soy ciertamente algo crítico con las cosas que se están haciendo. No voy a votar en contra porque, también he de reconocer el valor que tiene, por ejemplo, que se estabilice una plaza de una persona que ha tenido que hacer un juicio en contra de la empresa con sus lagunas, y tal. Me parece que no puedo votar en contra de esa estabilización, o de personas que, desde el punto de vista administrativo, van a tener otros puestos. No lo puedo hacer. Pero, en cualquier caso, tengo que manifestar mi posición crítica de las cosas que se están realizando porque hay cierta falta de transparencia en el tema de personal.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko. Besterik?

**EL SR ALCALDE:** Gracias. ¿Algo más?

**LEKUONA ANDREA:** Bai, gure aldetik, aipatu den bezala, gaur ekartzen dena da plantilla organikoa, urtero onartu beharrekoa. Beste kontu bat da egonkortze-prozesua, martxan dagoena. Orduan, gutxienean, bi kanaletatik lantzen ari da pertsonalaren gaia.

Guk argi ikusten duguna da eguneraketa honetan egiten dena dela etxean ordena pixka bat jarri, ordena. Urtetan esan den bezala, izendapen ez-egokiak, eskalak… jarri, gutxienean, minus egoera batetik zero batean goazen jartzera zerrenda ondo. Egonkortze-prozesua bideratzen ari den bitartean, berrikuntza batzuk eman dira. Batzuk borondatez, hainbeste urte ondoren berrikuntza, barkatu, berdintasun teknikariarena bezala, hainbeste urte behar izan direnak zerrenda honetan berdintasun teknikari bat agertzeko, beste langile batena, juiziora joan behar izan duena udal langilea dela ere errekonozitzeko, eta, kontua da zerrenda oso luzea dela. Hemen aurrean baditugu batzuk.

**LA SRA LEKUONA:** Sí, por nuestra parte, tal y como se ha comentado, lo que hoy se trae aquí es el tema de la plantilla orgánica a aprobar todos los años. Otra cuestión es el proceso de estabilización ya en marcha. Por tanto, el tema del personal se está trabajando al menos por dos canales.

En nuestro grupo lo que vemos claro es que lo que se hace en esta actualización es poner un poco de orden en la casa. Tal y como se ha dicho durante años, nombramientos inadecuados, escalas… pero, al menos, partiendo desde cero, pongamos esa relación como es debido. Mientras se encauza el proceso de estabilización, se han producido algunas innovaciones. Algunas voluntarias, al cabo de tantos años, perdón, como la de la técnica de igualdad, en la que tantos años se han necesitado para poner en esta relación una técnica o técnico de igualdad, una trabajadora que ha tenido que ir a juicio para ser reconocida como trabajadora municipal, y la cuestión es que esa lista es muy larga. Aquí delante tenemos algunas plazas.

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

Daukaguna da erronka oso handiak udaletik eraman behar ditugunak, baina urteetan ez da inbertitu pertsonengan, ez da inbertitu udal-langilegoan. Orain ordena ari da jartzen plantilla organiko honekin, baina argi dago behar dugula eraman nahi ditugun politika horietarako guztietarako, esan mugikortasunean, kirolean, etxez etxeko zerbitzuan, parte-hartzean, energian… guztietan behar dugu langilegoa. Denean. Erronka oso handiak ditugu, kriston lana burutzen ari gara eta baita ere pertsonal sailean. Pertsonal sailean, seguru nago, gehiago nahiko luketela, baina ez daude baliabiderik. Egiten ari garena da, bateratzen ari diren aukera horietatik, Lanbiderena bezala, bueno, momentuko aukerekin erantzun. Baina, noski, ez da nahi duguna, ze nahiko genukeena da plantilla organiko hau hurrengo urtekoan, 2025-2026koan askoz ere plaza gehiago egotea. Baina, gure aldetik eta oraingoz, esaten dudana, eguneraketa horretan eta egon diren berrikuntzei gure bozka aldekoa izango da.

Lo que tenemos son grandes retos que debemos sacar adelante desde el ayuntamiento, pero durante años no se ha invertido en las personas, no se ha invertido en el personal municipal. Ahora se está poniendo orden con esta plantilla orgánica, pero está claro que debemos llevar esto a todas las políticas que queremos tener, sea en movilidad, en deporte, en servicio domiciliario, en participación, en energía… necesitamos personal en todas las políticas. En todas. Tenemos grandes retos, estamos haciendo un trabajo enorme, y también en el departamento de personal. En el departamento de personal estoy segura de que quisieran más, pero no hay recursos. Lo que estamos haciendo es, partiendo de esas opciones que estamos unificando, como la de Lanbide, es dar una respuesta con las opciones del momento. Pero, claro, no es lo que queremos, porque lo que quisiéramos es que en este plantilla orgánica del ejercicio 2025-2026, hubiera muchas más plazas. Pero, de momento, lo que digo es que nuestro voto será favorable para esa actualización y para las novedades habidas.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko. Beno, argipen batzuk ematera behartu nau Josuren interbentzioak, zalantzarik gabe.

**EL SR ALCALDE:** Gracias. Bueno, la intervención de Josu me obliga a hacer algunas aclaraciones, desde luego.

Lehenik eta behin, Josu, esan beharra daukat, ekartzen denean puntu bat gai-ordenean, berez, puntu horri buruz eztabaidatzeko ekartzen dela puntua, eta zuk nahasten dituzu puntu horren barruan hamabost gauza ezberdin. Badakigu horretan espezialista zarela eta gustatzen zaizula dena nahastea, baina ez da kontua hori. Gaur ekartzen genuena zen lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoaren eguneratze baten proposamena, eta, esan dudan bezala hasieran, garbiago ulertzeko asmoarekin egiten dugulako udalean dauden langileak lanpostuen zerrendan, berez horrela jasoa beharko luketen langileen zerrenda eta lan-baldintzak. Zuk nahastu dituzu beste hamaika gauzarekin.

En primer lugar, Josu, debo decir que, cuando se trae un punto al orden del día, ese punto se trae para debatir sobre el mismo únicamente, pero usted mete dentro de ese punto otros quince temas distintos. Ya sabemos que en eso es usted especialista y que le gusta embrollarlo todo, pero no se trata de eso. El tema de hoy era la propuesta de una Relación de Puestos de Trabajo y de una actualización de la plantilla orgánica, y, como ya he dicho, al principio lo hemos hecho con la intención de entender más nítidamente el personal incluido en la Relación de Puestos de trabajo del Ayuntamiento, en las que debería estar recogida dicha relación y las condiciones laborales. Usted ha confundido eso con mil cosas más.

Egonkortze-prozesua, Josu, egonkortze-prozesuaren inguruan eskatu duzu bilera monografiko bat horri buruzkoa aurreko ostegunean izandako bileran, eta prestatzen ari ginen datorren ostegunean, honetan udalbatza genuelako, zure eskaerari erantzuteko datorren ostegunerako egonkortze-prozesuen inguruko informazio osoa jaso eta transmititzea. Zuk

Respecto al proceso de estabilización, Josu, ha solicitado una reunión monográfica sobre el proceso de estabilización en la reunión mantenida el pasado lunes, y se estaba preparando para el jueves que viene, ya que en éste teníamos el pleno municipal, y en respuesta a su petición, el próximo jueves teníamos la recogida y transmisión de toda



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

eskatu eta aste betean, bi astetan kasu honetan udalbatza genuelako, lantzen ari gara informazio horren transmisioa. Beharra daukazunean zerbait planteatzeko erantzuten zaizu, eta momentuan ezin bada, ahalik eta lasterren erantzuten zaizu eta, egonkortze-prozesuarekin horretan lanean ari da saila. Noski, kristoren lan bolumenarekin, zuk aipatu duzun bezala, eta uste dut inorentzat ez dela harritzekoa izango egonkortze-prozesua azkenean oposaketa baten alderaketa duen prozesua dela eta oposaketa-prozesuetan helegiteak egotea ohikoa da, arrunta da, lehendik egon dira udal honetan, beste administrazioetan ere egoten dira, eta horien lanketan gaude eta epemuga da abenduak 31rako izendapen guztiak eginak egotea. Hori publikoa da. Hori udalbatza honetan esan da mila aldiz. Lanean gaude prozesu horiek amaierara eramateko. Nahi duzula argipen gehiago momentu honetan ze egoeratan gauden? Ba emango zaizu, eta horretan lanean gaude emateko, jasotzeko prozesu bakoitza, bere xehetasun guztiekin, ze egoeratan dagoen adierazteko.

la información sobre los procesos de estabilización. A la semana de que lo pidiera, como en dos semanas teníamos el pleno municipal, estamos trabajando en la transmisión de toda esa información. Cuando tiene necesidad de plantear algo se le responde, y si no es posible hacerlo al momento, se le responde lo antes posible, y el departamento está trabajando en ese proceso de estabilización. Claro, el volumen de trabajo es enorme, tal y como usted ha mencionado, y no creo que nadie se extrañe si digo que el proceso de estabilización es comparable al proceso de una oposición, y la existencia de recursos en los procesos de oposición es habitual, es algo común, ya se han dado en este Ayuntamiento, y también en otras administraciones, y estamos elaborando ese proceso, y la fecha límite es 31 de diciembre, fecha para la que todos los nombramientos tendrán que estar ya realizados. Eso es público. Eso se ha dicho en este pleno mil veces. Estamos trabajando para llevar a buen término esos procesos. ¿Desea más aclaraciones sobre la situación en la que estamos ahora mismo? Pues se le dará, y estamos trabajando para ofrecer esa información, para recoger cada proceso, con todos sus detalles, para explicar así en qué situación está.

Gardentasun falta dagoela aipatzea prozesua publikoa izan denean, aurreko legealditik ere badator eta hemen hainbat aldiz hitz egin dugunean, prozesu horri buruz, eta bukaerara eramaten ari garen honetan, mingarri xamarra dela aipatuko nuke.

Decir que ha habido falta de transparencia cuando el proceso ha sido público, un proceso que viene de la legislatura anterior y del que hemos hablado aquí tantas veces, y justo ahora que lo estamos llevando a su fin, diría que es ofensivo.

Baina, egonkortze-prozesuarekin lotu dituzu artxibariaren, liburutegiko kasua, lanpostuen balorazioaren gaia… denarekin nahaste-borraste bat egiten duzu izugarria, Josu. Beno, seguru aski nahita. Egiten duzu kriston nahaste-borrastea. Esan beharra daukat ere, egonkortze-prozesua dela gauza bat, hor daudela berrogeita bat lanpostu egonkortze-prozesuan, batzuk ebatzi dira jada, beste batzuetan abenduko 31ra arteko epemuga daukagu eta horietan buru-belarri lanean gabiltza, berrogeita bat lanpostu, eh? Josu. Eta, gero, badaude beste gauza batzuk. Lanpostuen zerrenda honetan, aztertuz gero, ikusiko dela lanpostu batzuk hutsik daudela, beste batzuk interino bitartez beteta daudela, edo aldikotasunaren kontratu bitartez. Horretarako, onartu genuen udalbatza honetan hiru urteko lanpostuen deialdi

Pero, ha relacionado con el proceso de estabilización el caso del archivero o de la biblioteca, el tema de la valoración de los puestos de trabajo… con todo eso hace un embrollo tremendo, Josu. Bueno, seguramente, intencionadamente. Pero hace un embrollo tremendo con todo eso. Debo decir que el proceso de estabilización es una cosa, en ese proceso de estabilización hay cuarenta y un puestos de trabajo en proceso de estabilización, unos ya se han resuelto, otros tenemos de fecha límite hasta el 31 de diciembre y estamos trabajando a tope en ello, cuarenta y un puestos. Eh, Josu? Y luego hay otras cosas. En esta Relación de Puestos de Trabajo se observará que algunos de los puestos están vacantes, otros están cubiertos por interinos o



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

publiko bat egiteko hogeita bost lanpostu gehiagorako oposaketa-prozesuak burutzea. Hori ere publikoa da, Josu, hemen eztabaidatu genuen. Hor administrarien deialdia, adibidez, jada egin da, ibilbide horretan. Kriston lanketa du. Baina, esatea ez dugula ezagutzen, edo ez dela ezagutzen. Deialdia egina dago, publikatua dago. Etorriko dira. Artxibariaren deialdia ere etorriko da, ondoren, liburutegiko arduradunaren deialdia etorriko da, baina gauzak urratsez urrats. Horregatik esan dut lehen gaurkoa urrats bat gehiago dela, ez da azkena izango. Lanpostuen balorazioari dagokionean, abendurako aurreikusten dugu beste urrats bat gehiago eman beharko dugula horretan lanean gaudelako. Baina esatea aipatu direnak… Eta, gero, nahaste-borraste horretan lanpostuen balorazioari buruz aritu zara. Hau da, kontratatu behar zen zerbitzu bat lanpostuen balorazio objektibo bat egiteko. Eta esan duzu, ez gaude geldirik. Bi aldiz egin da deialdia. Gauza batengatik edo besteagatik, desertu gelditu da. Gustatuko litzaidake niri, noski, lehenengo deialditik esleitzea lanpostuen balorazio hori egingo zuen enpresa, eta jada lanean egotea eta aurreratzea lehenbailehen. Baina desertu gelditu da. Hori da gure sistemak dauzkan bermeen araberako gabezietako bat. Hirugarren saiakera egingo dugu urte amaiera baino lehenagotik lanpostuen balorazioan lanean jartzeko. Hori da gure konpromisoa. Baina esatea badakizun hori, hau da, prozesua martxan egon dela, bi bider jarri behar izan dela martxan, horrek suposatzen duen guztiarekin, eta, nolabait, ez dugula ezagutzen. Zuk ezagutzen duzu, oso ongi aipatu duzun bezala.

mediante contratos de temporalidad. Por ello, en este Pleno aprobamos realizar procesos de oposición para más de veinticinco plazas de cara a una convocatoria pública de plazas de tres años. Eso también es público, Josu, lo debatimos aquí. Por ejemplo, la convocatoria de administrativos/as ya se ha hecho, y dentro de ese recorrido. Es un trabajo enorme. Pero, decir que no la conocemos o que no se conoce… La convocatoria está hecha, es pública. Ya vendrán más. Vendrá también la convocatoria de administrativos/as, pero las cosas se hacen paso a paso. Por eso he dicho antes que lo de hoy es un paso más, y que no va a ser el último. Respecto a la valoración de los puestos de trabajo, para diciembre prevemos que tendremos que dar otro paso más, y ya estamos trabajando en ello. Pero decir las cosas que se han dicho… Y, luego, en ese embrollo suyo ha habado usted de la valoración de los puestos. es decir, habría que contratar un servicio para realizar así una valoración objetiva de las plazas a cubrir. Y lo ha dicho, no estamos quietos. Dos veces se ha realizado la convocatoria. Ya me gustaría a mí adjudicar ya en la primera convocatoria la empresa que se vaya a encargar de hacer esa valoración de las plazas y que estuviera ya en ello y así adelantar el trabajo. Pero ha quedado desierta. Ésa es una de las carencias que tiene nuestro sistema en función de las garantías. Vamos a hacer un tercer intento para, ya desde antes de finales de año, ponernos a trabajar en la valoración de los puestos de trabajo. Ése es nuestro compromiso. Pero decir eso que usted sabe, es decir, que el proceso ha estado en marcha, que ha tenido que ponerse en marcha dos veces, con todo lo que eso supone, y luego decir que no lo conocemos. Pues usted sí lo conoce, como muy bien ha dicho antes.

Hirugarren aldagaia, beno, ez dakit zenbatgarren aldagaia aipatu duzuna, sustapeneko lanpostuen gaia. Jo, Josu, egin dugu saiakera izugarria egin dugu sustapeneko kontratazio horiek egiteko ahalik eta modu zabalenean, ez lanpostu estrukturalak betetzeko, noski, zuk esan duzun bezala. Ez, ez. Enplegagarritasuna handitzeko saiakera bat egin dugu. Denak sail batean kokatu beharrean, orain arte, zuk esan duzun bezala, mendien garbiketa eta, egin ditugu brigadarako lanpostu batzuk, administrazio ikuspegiko beste lanpostu batzuk, teknikari ikuspegiko beste lanpostu batzuk… Egin

Tercera variable, bueno, no sé cuántas variables ha comentado, el tema de los puestos de promoción. Jo, Josu, hemos hecho un esfuerzo enorme por realizar esas contrataciones de promoción de la manera más amplia posible, y no para cubrir puestos estructurales, como usted ha dicho. No, no. Hemos intentado aumentar la empleabilidad. En lugar de ubicar a todos en un departamento, como hasta ahora, tal y como usted mismo ha dicho, limpieza de montes, etcétera, hemos planteado unos puestos de brigada, otros puestos de enfoque administrativo, otras puestos de



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

dugu zabaltzeko nahi batekin. Hondarribian egon daitezkeen langabetuek sarbidea eduki dezaten lanpostu batetarako. Hori nabaria da ikusten denean ze zabaltasunarekin egin dugun deialdi horretako hautagaitza eskaera. Berriro esango dut, laugarren puntu hau, 2024rako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda aldatzeari buruzko gaia zen.

enfoque técnico… Lo hemos hecho con el deseo de ampliarlo. Para que las personas en paro que pueda haber en Hondarribia puedan tener acceso a un puesto de trabajo. Eso es evidente cuando se observa la amplitud con la que hemos realizado la solicitud de candidatura a dicha convocatoria. Repito, este cuarto punto era el tema de la plantilla orgánica de 2024 y de la modificación de la relación de puestos de trabajo.

Ongi baderitzozue, bozkatuko dugu?

Si les parece bien, ¿lo sometemos a votación?

Zer? Beste… baina puntuari buruz? Ez, ez, Josu, ez.

¿Qué? Otro… ¿pero, sobre el punto? No, no, Josu, no

**ALVAREZ JAUNA:** Erantzuteko eskubidea.

**EL SR ALVAREZ:** Derecho a réplica.

**ALKATE JAUNA:** Ez. Puntuari buruz?Erantzuteko eskubidea da… lanpostu…

**EL SR ALCALDE:**.No. ¿Sobre el punto? Derecho a réplica es…puesto de trabajo…

**ALVAREZ JAUNA:** Zuk esan dituzun gauzak… zalantzan jarri duzu…

**EL SR ALVAREZ:** Las cosas que tú has dicho…has puesto en cuestión…

**ALKATE JAUNA:** Josu, ez, ez. Erantzuna gai zerrendari buruzkoa da.

**EL SR ALCALDE:** Josu, no, no. La réplica es sobre el punto del orden del día.

**ALVAREZ JAUNA:** Barkatu, erantzuna beti egiten da nik esandakoari buruz zuk erantzun duzunari buruz. Beti. Baina ez badidazu uzten erantzuten, ba kito, ondo da.

**EL SR ALVAREZ:** Perdona, la réplica es siempre sobre las manifestaciones tuyas respecto a lo que yo he dicho. Bueno, si no me dejas, pues ya está, vale.

**ALKATE JAUNA:** Esan dizut eztabaida-gaia daukaguna dela, hemen, puntuan hitz egiten dena, eta zuk atera dituzun beste ez dakit zenbat gai horien aurrean, erantzun bat eman dizut, baina hitz egiteko dugun eztabaida-gaia da aztergaian daukagun puntua. Horren inguruan nahi duzu esan zerbait?

**EL SR ALCALDE:** Ya le he dicho que el tema a debatir es el que tenemos aquí, el que se menciona en el punto, y ante esos no sé cuántos puntos que usted ha sacado, le he dado una respuesta, pero el tema de debate de hoy es el punto que tenemos en el orden del día. ¿Quiere decir algo en relación a ello?

**ALVAREZ JAUNA:** Zeuk esan duzunari buruz da. Ni ez nago ados zuk esandakoarekin, eta kito. Dena den, erantzun horren zati hori gaurko hizpidearekin bat ez datorrela esan didazu, eta nire erantzuna ez badator bat gaurko gaiarekin, beno ba. Ez dut hitz egingo eta kito.

**EL SR ALVAREZ:** Es sobre lo que tú ha comentado. Yo no estoy de acuerdo con lo que has manifestado y punto. Ahora, me dices que no viene al caso esa parte de la réplica, sino viene al caso la réplica en cuanto al tema, pues no, pues ya está. No hablo y punto.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko. Bozketara pasako gara beraz? Aldeko bozkak? Aurkakoak? Abstentzioak? Gehiengoz onartua.

**EL SR ALCALDE:** Gracias. ¿Pasamos por tanto a la votación? ¿Votos a favor? ¿En contra? ¿Abstenciones? Aprobado por unanimidad.

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

Bosgarren puntura pasako gara?

**5.-UDAL LANGILE BATEN BIGARREN JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA AITORTZEARI BURUZ.**

Udal langile baten bigarren jardueraren bateragarritasuna aitortzeari buruzko espedientea aztertu ondoren.

2024ko irailaren 19ko Udal Kudeaketa batzordearen diktamena ikusi ondoren.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Aldeko botoak: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (1) eta EH Bildu (1).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** bertaratutakoen aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

**LEHENENGO.-**2024ZZZP0028 espedientean jasotzen den interesdunak eskatutako bateragarritasun-aitorpena baimentzea, horretarako legez ezarritako mugekin.

**BIGARREN.-**Bateragarritasun-baimenaren berri ematea interesdunari, zerbitzuak ematen dituen Sailari eta Funtzio Publikoaren Kontseilu Nagusiari.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Udal langile baten bigarren jardueraren bateragarritasuna aitortzeari dagokiona da eta, jakingo duzuen bezala, udal kontu-hartzaile berria daukagu Hondarribiko Udalean abuztuaren hasieratik. Langile honek idatzi bat erregistratu zuen udalean egiten duen lana bateragarria egitea EHUn egiten duen jardun murriztuko lan batekin, kontuan izanda administrazio orokorreko teknikariak egindako txostenean bateragarritasun-aitorpena baimentzeko baldintzak betetzen direla aipatzen dela, eta osoko bilkura dela aitorpen hori erabakitzeko organoa, proposatzen dugu kontu-hartzaile jaunaren bigarren jardueraren bateragarritasuna aitortzea.

¿Pasamos al punto quinto?

**5.-EN RELACIÓN CON RECONOCIMIENTO DE COMPATIBILIDAD DEL EJERCICIO DE SEGUNDA ACTIVIDAD DE UN EMPLEADO MUNICIPAL.**

Examinado el expediente en relación con reconocimiento de compatibilidad del ejercicio de segunda actividad de un empleado municipal.

Visto el dictamen de la Comisión de Gestión Municipal de 19 de septiembre de 2024.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Votos a favor: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (1) y EH Bildu (1).

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA:**

**PRIMERO.-** Autorizar el reconocimiento de compatibilidad solicitado por el interesado, cuya identidad se recoge en el expediente 2024ZZZP0028, con las limitaciones legalmente establecidas para ello.

**SEGUNDO.-** Comunicar la autorización de la compatibilidad al interesado, al Departamento donde presta sus servicios y al Consejo Superior de la Función Pública.

Intervenciones en relación al acuerdo:

**EL SR ALCALDE:** Se trata del reconocimiento de compatibilidad de la segunda actividad de un trabajador municipal y, como saben, tenemos un nuevo interventor municipal en el Ayuntamiento de Hondarribia desde principios de agosto. Este trabajador registró un escrito en el ayuntamiento planteando la compatibilidad de su labor municipal con otra labor de dedicación reducida que realiza en la UPV, y teniendo en cuenta que en el informe emitido por el técnico o técnica de la Administración General se hace referencia al cumplimiento de los requisitos para la autorización de la declaración de compatibilidad, y siendo el Pleno el órgano para acordar dicho reconocimiento, se propone el reconocimiento de

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

la compatibilidad de la segunda actividad del señor interventor.

Zalantzarik edo galderarik?

¿Alguna duda o pregunta?

Bozkatuko dugu, beraz?

¿Lo sometemos a votación, por tanto?

Aldeko bozkak? Aho batez onartua.

¿Votos a favor? Aprobado por unanimidad.

**KONTUEN BATZORDE BEREZIA**

**COMISIÓN Y ESPECIAL DE CUENTAS**

**6.-18/2024 ZKIKO KREDITU GEHIGARRIEN ALDAKETA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

**6.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS ADICIONAL Nº 18/2024.**

18/2024 zkiko kreditu gehigarrien aldaketa onartzeko proposamenari dagokion espedientea aztertu ondoren.

Examinado el expediente relativo a la propuesta de aprobación de la Modificación de Créditos Adicional nº 18/2024.

Udal kontu-hartzaile jaunaren 2024ko irailaren 17ko 24/2024 zkiko txostena ikusi ondoren, nahitaezko ez planifikagarria den finantza kontrol iraunkorrarri buruzkoa. Txostenak ondorioztatzen du ohartaraztekoa dela Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Gerakinarekin finantzatutako aurrekontu aldaketa honen finantzazioak aurrekontu ezegonkortasuna sor dezakeela eta gastu konputagarria handitzea ekar dezakeela. Horrek guztiak eragingo lukeela, azkenik, dagokion Plan Ekonomiko Finantzarioa onartzea.

Visto el informe nº 24/2024 de 17 de septiembre de 2024 del Sr. Interventor Municipal de control financiero permanente de legalidad obligatorio no planificable, el cual concluye con la advertencia de que la tramitación de la presente modificación presupuestaria financiada con Remanente de Tesorería para Gastos Generales, es previsible que genere inestabilidad presupuestaria y dé lugar al incremento del gasto computable. Todo ello, conllevando en último lugar la aprobación del correspondiente Plan Económico Financiero.

Kontuen Batzorde Bereziaren 2024ko irailaren 19ko proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Sometida a votación la propuesta de la Comisión y Especial de Cuentas del 19 de septiembre de 2024, el resultado de la misma es el siguiente:

Aldeko botoak: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (1) eta EH Bildu (1).

Votos a favor: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (1) y EH Bildu (1).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** bertaratutakoen aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-**Jakinaren gainean gelditzea Udal kontu-hartzaile jaunaren 2024ko irailaren 17ko 24/2024 zkiko txostenaz, nahitaezko ez planifikagarria den finantza kontrol iraunkorrarri buruzkoaz. Txostenak ondorioztatzen du ohartaraztekoa dela Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Gerakinarekin finantzatutako aurrekontu aldaketa honen finantzazioak aurrekontu ezegonkortasuna sor dezakeela eta gastu

**PRIMERO.-** Quedar enterado del informe nº 24/2024 de 17 de septiembre de 2024 del Sr. Interventor Municipal de control financiero permanente de legalidad obligatorio no planificable, el cual concluye con la advertencia de que la tramitación de la presente modificación presupuestaria financiada con Remanente de Tesorería para Gastos Generales, es previsible que genere inestabilidad presupuestaria y dé lugar al

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

konputagarria handitzea ekar dezakeela. Horrek guztiak eragingo lukeela, azkenik, dagokion Plan Ekonomiko Finantzarioa onartzea.

incremento del gasto computable. Todo ello, conllevando en último lugar la aprobación del correspondiente Plan Económico Financiero.

**BIGARREN.-** 18/2024 zkiko aurtengo kreditu gehigarrien aldaketa onartzea 539.592,29 eurotan, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kontura finantzatuko dena.

**SEGUNDO.-** Aprobar Modificación de Créditos Adicional nº 18/2024 del presente año por importe de 539.592,29 euros, financiándose con cargo al remanente de tesorería para gastos generales.

**HIRUGARREN.-** Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, hamabost egun balioduneko epean. Epe horretan, interesa duenak espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango ditu Udalbatzaren Osoko Bilkuran.

**TERCERO.-** Someter a Información Pública el expediente, mediante inserción de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por plazo de quince días hábiles, durante los cuales podrá ser examinado por quien tenga interés y presentar las reclamaciones ante el Pleno de la Corporación.

**LAUGARREN.-** Epea inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe igarotzen bada, akordioa behin betikoz onartutzat joko da.

**CUARTO.-**Transcurrido dicho plazo, si, durante el mismo, no se hubieran presentado reclamaciones, el acuerdo quedará definitivamente aprobado.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

Intervenciones en relación al acuerdo:

**ALKATE JAUNA:** Pasako gara seigarren puntura, kontuen batzorde berezitik datorrena. 18/2024 zenbakiko kreditu gehigarrien aldaketa onartzeko proposamena da.

**EL SR ALCALDE:** Pasamos al sexto punto, que viene de la comisión especial de cuentas. Se trata de una propuesta para aprobar la modificación de los créditos adicionales 18/2024.

Proposamen hau dator urtean zehar aurreikusi ezin zitezkeen gertatu diren bi gertakariren ondorioz. Horiek aurrekontuaren kreditu gehigarri bat egin beharrean aurkitzen gara.

Esta propuesta llega a raíz de dos sucesos imprevisibles acaecidos a lo largo del año. Razón por la que nos vemos obligados a solicitar un crédito adicional al presupuesto.

Alde batetik, martxoan, Jaizkibel mendiaren hegalean gertaturiko luiziaren ondorioa da. Jakingo duzuen bezala, mendi magalean gertatutako erorikoak Farolako bidea estali zuen eta bidea itxita geratu behar izan zen.

Por un lado, es consecuencia del desprendimiento ocurrido en marzo en la ladera del monte Jaizkibel. Como sabrán, el desprendimiento en la falda del monte obstruyó el camino del Faro y hubo que cerrarlo al tránsito.

Gipuzkoako Foru Aldundiak urgentziaz hartu zuen lanak burutzeko ardura, Udalarekin horrela akordatuta. Honela, hegala egonkortu eta errepidearen irekiera ahalbidetuko da abuztura arte iraun dituzten lan horiekin. Egindako lanen kopuru osoa ia 870.000 eurokoa da, eta Foru Aldunditik hitzarmen bat proposatu digute, lanen finantzazioa erdibana egiteko.

La Diputación Foral de Gipuzkoa asumió con carácter de urgencia la ejecución de los trabajos, previo acuerdo con el Ayuntamiento. De esta manera, se estabilizaría la ladera y se posibilitaría la apertura de la carretera con estos trabajados que han durado hasta el mes de agosto. El importe total de los trabajos realizados asciende casi a 870.000 euros, y desde la Diputación Foral nos proponen un convenio para financiar dichos trabajos a partes iguales.

Beste alde batetik, San Telmo gazteluaren erosketari

Por otro lado, en cuanto a la compra del castillo de



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

dagokionez, erreklamazio bat izan zen saltzailearen aldetik bere garaian. Saltzaileak kudeaketa-gastu batzuk jaso behar zirela eskatu zizkion Hondarribiko Udalari. Udaletik egin zen irakurketaren arabera, ez ziren kudeaketa gastu horiek ordaindu behar, eta saltzaileak Udalaren ezezkoaren aurrean, epaitegietara jo zuen. Irailaren 6an jaso zen epaia eta, epai horren arabera, Hondarribiko Udala behartzen du gastu horiek ordaintzera, eta gastu horiek 105.000 eurotan baloratzen dira.

San Telmo, en su día hubo una reclamación por parte del vendedor. Éste solicitó al Ayuntamiento de Hondarribia el pago de una cantidad en concepto de gastos de gestión. La lectura que se hizo desde el Ayuntamiento era que no había que abonar esos gastos de gestión, y ante la negativa del Ayuntamiento, el vendedor acudió a los tribunales. La sentencia se recibió el pasado 6 de septiembre y obliga al Ayuntamiento de Hondarribia a abonar esos gastos, valorados en unos 105.000 euros.

Beraz, bi kontzeptu hauei aurre egiteko, 539.592, 29 euroko kreditu gehigarrien aldaketa proposatzen da. Aldaketa hau altxortegi-gerakinetik finantzatuko da.

Por tanto, para hacer frente a estos dos conceptos, se propone una modificación de los créditos adicionales por un importe de 539.592,29 euros, a financiar con el remanente de tesorería.

Ez dakit zalantzarik edo galderarik dagoen? Bozketara pasa gaitezke?

No sé si hay alguna duda o pregunta. ¿Pasamos a la votación?

Aldeko bozkak? Aho batez onartuta

¿Votos a favor? Aprobado por unanimidad.

**MOZIOAK**

**MOCIONES**

**7.- ABOTSANITZ, EAJ, PSE-EE-PSOE ETA EH BILDU UDAL TALDEEK AURKEZTURIKO MOZIOA HONDARRIBIKO ALKATE, ZINEGOTZI ETA UDAL FUNTZIONARIOAK HAIEN KARGUETAN BIRJARTZEARI BURUZ**

**7.-MOCIÓN PRESENTADA POR LOS GRUPOS MUNICIPALES ABOTSANITZ, PNV, PSE-EE-PSOE Y EH BILDU EN RELACIÓN A LA REPOSICIÓN EN SUS CARGOS DE ALCALDES, CONCEJALES Y FUNCIONARIOS MUNICIPALES DE HONDARRIBIA**

Abotsanitz, EAJ, PSE-EE-PSOE eta EH Bildu udal taldeek Hondarribiko alkate, zinegotzi eta udal funtzionarioak haien karguetan birjartzeaz aurkezturiko mozioa aztertu ondoren, 2024ko irailaren 25eko 10806SE zkikoa.

Examinada la moción presentada por los grupos municipales Abotsanitz, PNV, PSE-EE-PSOE y EH Bildu en relación a la reposición en sus cargos de alcaldes, concejales y funcionarios municipales de Hondarribia, RE nº 10806 de 25 de septiembre de 2024.

Mozioa bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Sometida a votación la moción, el resultado de la misma es el siguiente:

Aldeko botoak: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (1) eta EH Bildu (1).

Votos a favor: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (1) y EH Bildu (1).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** bertaratutakoen aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-**Onartzea Abotsanitz, EAJ, PSE-EE-PSOE eta EH Bildu udal taldeek Hondarribiko alkate, zinegotzi eta udal funtzionarioak haien

**PRIMERO.-**Aprobar la moción presentada por los grupos municipales Abotsanitz, PNV, PSE-EE-PSOE y EH Bildu en relación a la reposición en sus



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

karguetan birjartzeaz aurkezturiko mozioa, 2024ko irailaren 25eko 10806SE zkikoa.

cargos de alcaldes, concejales y funcionarios municipales de Hondarribia, RE nº 10806 de 25 de septiembre de 2024.

**BIGARREN.-**Hondarribiko alkate karguan Manuel Canoura Hernandorena eta Ramón Pérez Pérez jaunak berriz jartzea – herritarren borondatearen adierazgarri aukeratuak – Hondarribiko alkate gisa, eta udal aktetan horrela jasota gera dadila.

**SEGUNDO.-**Reponer en su cargo de alcaldes de Hondarribia – elegidos como expresión de la voluntad popular- a los señores Manuel Canoura Hernandorena y Ramón Pérez Pérez como alcaldes de Hondarribia y que consten como tales en las actas municipales.

**HIRUGARREN.-** Demokratikoki hautatutako zinegotzien karguan Floro Izaguirre Aguirrezabal, Juan Garmendia Iriazabal, Enrique Berrotaran Sagarzazu, Angel Urrutia Zuzuarregui, Pedro Alcain Berrotaran, Anselmo Salaverria Picavea, Pedro García Ortiz, Juan Telleria Larrea, eta Juan Jose Petit Ory jaunak birjartzea, eta udal-aktetan horrela jasota gera dadila.

**TERCERO.-**Reponer en su cargo de concejales democráticamente elegidos -como expresión de la voluntad popular- a los señores Floro Izaguirre Aguirrezabal, Juan Garmendia Iriazabal, Enrique Berrotaran Sagarzazu, Angel Urrutia Zuzuarregui, Pedro Alcain Berrotaran, Anselmo Salaverria Picavea, Pedro García Ortiz, Juan Telleria Larrea, y Juan Jose Petit Ory como concejales del Ayuntamiento de Hondarribia y que así conste en las actas municipales.

**LAUGARREN.-** Honako udal-funtzionario hauen aurka kolpistek eta haien aldekoek hartutako zigorrak kentzea eta inolako ondoriorik gabe uztea: Angel Telleria Zumalakarregui, Jose Miguel Echaniz Arruti, Arturo Hernández San Martin, Candido Ostolaza Garate, Antonio Bernedo Fernández, Luis Telleria Larrea, Alberto Lasa Badiola, Jesus Zubeldia Garaño, Martin Goicoechea Loidi, Francisco Sagrado Zubiaga, Antonio Tobalina Pérez, Juan Tolosa Catarain, Jesus Sagrado Azurmendi, Ramon Campandegui Sagarzazu, Francisco Lapitz Campandegui eta Cayo Lasa Zala. Udal-aktetan horrela jasota gera dadila.

**CUARTO.-** Reponer en sus cargos, y dejar sin ningún efecto, las sanciones adoptadas por los golpistas y sus partidarios contra los siguientes funcionarios municipales: Angel Tellería Zumalacarregui, Jose Miguel Echániz Arruti, Arturo Hernández San Martín, Cándido Ostolaza Garate, Antonio Bernedo Fernández, Luis Telleria Larrea, Alberto Lasa Badiola, Jesus Zubeldia Garaño, Martín Goicoechea Loidi, Francisco Sagrado Zubiaga, Antonio Tobalina Pérez, Juan Tolosa Cataráin, Jesús Sagrado Azurmendi, Ramon Campandegui Sagarzazu, Francisco Lapitz Campandegui y Cayo Lasa Zala, y que así conste en las actas municipales.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

Intervenciones en relación al acuerdo:

**ALKATE JAUNA:** Zazpigarren puntua aipatu dugu, lau udal taldeek Abotsanitz, EAJ, Alderdi Sozialista eta EH Bilduk proposatutako mozio bat dela, eta eskertuko nuke horren irakurketa, uste dut, Aitzolek egingo duela? Aitzol, zurea da hitza.

**EL SR ALCALDE:** Hemos citado el séptimo punto, que es una moción propuesta por los cuatro grupos municipales, Abotsanitz, PNV, Partido Socialista y EH Bildu, y agradecería la lectura de la misma. ¿Aitzol? Tiene la palabra, Aitzol.

**ARROYO JAUNA:** Arratsalde on guztiei. Lehenik eta behin irakurriko dizuet lau alderdien izenean erregistratu dugun proposamena eta, ondoren, behin guztia irakurrita, bi ñabardura txiki egitea gustatuko litzaidake. Honelaxe dio proposamenak:

**EL SR ARROYO:** Buenas tardes a todos y a todas. Primero leeré la propuesta que hemos registrado en nombre de los cuatro partidos, y después, una vez leída, me gustaría matizar dos cosas. La propuesta dice así:

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

“Hondarribiko alkate, zinegotzi, udal-funtzionarioak haien karguetan birjartzeko proposamena.

Gaur, irailak 26, Hondarribiko Udaleko alderdi guztien izenean, hots, Abotsanitz, EAJ, PSE eta EH Bildurenean, udalbatza honetarako proposamen hau erregistratu dugu.

1936ko uztailaren 18an, armadaren zati batek, Espainiako gizartearen sektore atzerakoienek lagunduta, Errepublikako Gobernu legitimoaren aurkako estatu kolpea eragin zuen. Defentsa nazionalerako batzordea deiturikoaren 108 Dekretuaren bidez, 1931ko apirilean demokratikoki hautatutako alkateak eta zinegotziak eta udal-langileak beren kargutik baztertu zituzten.

2022an onartu zen Memoria demokratikoaren legeak diktaduraren biktima guztiak aitortzeko eta omentzeko ateak irekitzen ditu. Hondarribiko Udalak bat egin nahi du kolpe militarraren, gerraren eta diktaduraren biktima guztien oroimen eta omenaldi horrekin.

Horregatik guztiagatik, Hondarribiko Udalak aho batez proposatu nahi du:

Bat, Hondarribiko alkate karguan Manuel Canoura Ernandorena eta Ramón Pérez Pérez jaunak berriz jartzea, herritarren borondatearen adierazgarri aukeratuak Hondarribiko alkate gisa, eta udal aktetan horrela jasota gera dadila.

Bigarren, demokratikoki hautatutako zinegotzien karguan Floro Izaguirre Aguirrezabal, Juan Garmendia Idiazabal, Enrique Berrotaran Sagarzazu, Angel Urrutia Zuzuarregui, Pedro Alkain Berrotaran, Anselmo Salaberria Pikabea, Pedro García Ortiz, Juan Tellería Larrea eta Juan Jose Petit Ori jaunak jartzea udal aktetan horrela jasota gera dadila.

Eta hirugarren, honako udal funtzionario hauek, aurka, kolpistek eta haien aldekoek hartutako zigorra kentzea eta inolako ondoriorik gabe uztea: Angel Tellería Zumalakarregi, Jose Miguel Etxaniz

“Propuesta para restituir en sus cargos a alcaldes, concejales y funcionarios municipales de Hondarribia.

Hoy, 26 de septiembre, en nombre de todos los partidos del Ayuntamiento de Hondarribia, Abotsanitz, PNV, PSE y EH Bildu, hemos registrado esta propuesta dirigida a esta Corporación Municipal.

El 18 de julio de 1936, una parte del ejército, apoyada por los sectores más reaccionarios de la sociedad española, provocó un golpe de Estado contra el Gobierno legítimo de la República. Mediante el decreto 108 de la llamada Comisión de defensa Nacional, en abril de 1931 se excluyó de sus cargos a los alcaldes y concejales elegidos democráticamente así como al personal municipal.

La Ley de memoria Democrática aprobada en 2022 abre las puertas al reconocimiento y homenaje de todas las víctimas de la dictadura. El Ayuntamiento de Hondarribia quiso sumarse a este homenaje a todas las víctimas del golpe militar, de la guerra y de la dictadura.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Hondarribia propone por unanimidad:

Uno, restituir en el cargo de alcalde de Hondarribia a los señores Manuel Canoura Ernandorena y Ramón Pérez Pérez, elegidos como alcaldes de Hondarribia, claro exponente de la voluntad de la ciudadanía, y que así conste en las actas municipales.

Dos, que en el cargo de concejales democráticamente electos figuren en las actas municipales los señores concejales Floro Izaguirre Aguirrezabal, Juan Garmendia Idiazabal, Enrique Berrotaran Sagarzazu, Angel Urrutia Zuzuarregui, Pedro Alkain Berrotaran, Anselmo Salaberria Pikabea, Pedro García Ortiz, Juan Tellería Larrea y Juan Jose Petit Ori.

Y tres, retirar y dejar sin efecto el castigo adoptado por los golpistas y sus partidarios contra los siguientes funcionarios municipales: Angel Tellería Zumalakarregi, Jose Miguel Etxaniz



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

Arruti, Arturo Hernández San Martín, Cándido Ostolaza Garate, Antonio Bernedo Fernández, Luis Tellería Larrea, Alberto Lasa Badiola, Jesús Zubeldia Garaño, Martín Goikoetxea Loidi, Francisco Sagrado Zubiaga, Antonio Tobalina Pérez, Juan Tolosa Azgarain, Jasús Sagrado Azurmendi, Ramón Kanpandegi Sagarzazu, Francisco Lapiz Kanpandegi eta Cayo Lasa Sala. Udal aktetan horrela jasota gera dadila.

Hondarribian, 2024ko irailaren 25ean".

Hauek dira proposamenak.

Esateko dagoena, ez banago oker, Euskal Herrian lehenengo udalerria izango gara biktima alkate, zinegotzi eta udal-funtzionarioei legea onartu zenetik omenaldi eta beraien karguetan birjarri edo arazketa prozesu hori pairatu zutenak berriz errekonozimendu hori egingo diegunak, beraz, nik uste dut, Hondarribian behintzat bide onetik goazela memoriari dagokionez. Bestetik, aipamen txiki bat. Historian adituak, edo kuriositate edo bitxikeria edo norbaitek zaletasuna badu, konturatuko zen zinegotzien artean izen bat falta zela, Francisco Sagarzazu Sagarzazu da bere izena. Bitxikeria moduan, ez zen arazketa-prozesu horren parte izan, izan ere seguraski Estatuan bakarra izango da Primo de Riveraren diktaduran, 2. Errepublikan eta Francoren diktaduran zehar kargu politikoa izan zuena, eta nik uste dut gaur egun guztiok badakigula zeintzuk ziren bere zaletasunak eta bere ideia politikoak. Kasu honetan, gaurkoan, beste aldean, edo biktima izan ziren horiei omentzeko eguna eta aukera baliatu behar dela, besteek beraien errekonozimendu eta ohore horiek guztiak diktadura garaian izan zituzten heinean. Beraz, aurretik aipatu bezala, alderdi guztien izenean erregistratu dugu. Beraz, printzipioz, guk honi aldeko bozka emango diogu. Eskerrik asko.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko Aitzol. Irakurketa partekatuaz aparte ulertzen dut udal-taldearen balorazioa zela. Gainerako udal-taldeek baloraziorik egiteko nahia baldin badute, hitza zabalduko dugu.

**CARRION JAUNA:** Bakarrik aipamen bat. Batez

Arruti, Arturo Hernández San Martín, Cándido Ostolaza Garate, Antonio Bernedo Fernández, Luis Tellería Larrea, Alberto Lasa Badiola, Jesús Zubeldia Garaño, Martín Goikoetxea Loidi, Francisco Sagrado Zubiaga, Antonio Tobalina Pérez, Juan Tolosa Azgarain, Jasús Sagrado Azurmendi, Ramón Kanpandegi Sagarzazu, Francisco Lapiz Kanpandegi y Cayo Lasa Sala. Que así conste en las actas municipales.

En Hondarribia, a 25 de septiembre de 2024".

Éstas son las propuestas.

Lo que hay que decir, si no me equivoco, es que en el País Vasco vamos a ser el primer municipio en donde se va a hacer un reconocimiento así a los alcaldes, concejales y funcionarios municipales que, desde la aprobación de esa ley han sido homenajeados y/o restituidos en sus cargos, razón por la que pienso que Hondarribia va por el buen camino en lo que a la memoria histórica se refiere. Por otro lado, una breve mención. El experto en historia o quien tenga esa curiosidad o rareza, si alguien tiene esta afición, se habrá dado cuenta de que entre los concejales falta un nombre, el nombre de Francisco Sagarzazu Sagarzazu. Como curiosidad, decir que él no forma parte de este proceso de restitución, ya que probablemente sea el único en todo el Estado que conservó el cargo durante la dictadura de Primo de Rivera, durante la República y durante la dictadura de Franco, y creo que hoy día todas y todos sabemos cuáles eran sus inclinaciones e ideas políticas. En este caso, hoy queremos aprovechar este día y esta ocasión para homenajear a quienes estuvieron en el otro lado, a aquellas víctimas, en la medida en que todos los demás tuvieron todos esos reconocimientos y honores durante la dictadura. Por lo tanto, como se ha comentado anteriormente, esta propuesta se ha registrado en nombre de todas las partes. Así que, en principio, nosotros votaremos a favor. Gracias.

**EL SR ALCALDE:** Gracias, Aitzol. Aparte de la lectura compartida, entiendo que ha sido una valoración de los grupos municipales. Si el resto de grupos desea hacer alguna valoración, abriremos un turno de palabra.

**EL SR CARRION:** Sólo una mención. Sobre



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

ere, gehitzeko Aitzolek esan duenari. Bihar prentsaurreko bat egingo dugu xehetasun guztiak bertan izango ditugu, eta web orrian izango dituzue. Gonbitea egiten dizuet denei ekintza honetan parte izatera. Nire ustez urrats bat da aipatu den moduan mozio honetan, eta aipatutako adostasun hau txalotzekoa da, baita egin den lanarengatik ere.

todo, para añadir algo a las palabras de Aitzol. Mañana haremos una rueda de prensa en la que tendremos todos los detalles, y también estarán disponibles en la página web. Les invito a todos y a todas a que participéis en la iniciativa. Considero que se trata de un paso más en esta moción, tal y como se ha mencionado, y que el consenso alcanzado es digno de aplauso, y también por el trabajo realizado.

(Txaloak)

(Aplausos)

**ALKATE JAUNA:** Josu, zurea da hitza.

**EL SR ALCALDE:** Josu, tiene la palabra.

**ALVAREZ JAUNA:** Nire ustez, gure aldetik… gure aldetik balorazioa izan behar du positiboa. Alde guztietatikan. Badu bere garrantzia, eta guretzat garrantzitsua da, orain dela urte bete, urte t'erdi, izan genituen mozio batzuk eta, haren ondoren, gero denon artean jarri ginen ados, guretzat oso garrantzitsua delako iristea momentu honetara, ezta? Badirudi gure tartean izan ditugula, eta beti emozioa ematen dit, tarte horretan dago pertsona bat ni Hondarribira etorri nintzenean ez nuena ezagutzen eta 2007an etorri nintzenean, esan nuen, ikusi behar dugu zer izan garan Alderdi Sozialistakoak, eta horren inguruan ikusi genuen bazela pertsona bat, figura bat, Ramón Pérez Pérez. Ez zuen inork ezagutzen. Gutxik ezagutzen dute. Batzuk bai, batzuk ezagutzen zuten. Horri haria ematen, konturatu ginen, poliki-poliki, lehendabizi liburu bat eta gero bigarrena eta hirugarrena, eta uste dut oso garrantzitsua dela guretzat, Alderdi Sozialistarentzat, eta besteentzako ere bai, pertsona hori errekonozitzea bere momentuan gobernu hartan, alkate izan zena exilioan. Eskertzekoa da alderdi guztien borondatea izan dela horretan. Hori eskertzekoa da. Beno, horrek mozio bat ematen du, eta guretzat oso garrantzitsua da pertsona hau. Gero beste bat ere, Canoura, eta Floro eta zenbait zinegotzi ere. Guretzat inportantea da eta eskertzekoa da alderdi guztien lana izan dela asuntu honetan, eta herritarrena jasotzea baita ere. Eskerrik asko.

**EL SR ALVAREZ:** Yo creo que por nuestra parte…por nuestra parte la valoración tiene que ser positiva. En todos los sentidos. Tiene su importancia, y para nuestro grupo es importante, porque hace un año o un año y medio tuvimos una serie de mociones, y posteriormente, nos pusimos todos los grupos de acuerdo, y por ello para nosotros es muy importante haber llegado a este momento, ¿no? Parece que los hemos tenido entre nosotros, y siempre nos emociona, ver que en ese espacio hay una persona que yo no conocía cuando vine a Hondarribia, y vine en 2007, y me dije "veamos quiénes hemos sido aquí el Partido Socialista", y en ese sentido vimos que había una persona, una figura: Ramón Pérez Pérez. No le conocía nadie. Pocos lo conocen. Algunos sí, algunos lo conocían. Así que poco a poco nos fuimos dando cuenta de quién era, primero un libro, y luego vino el segundo y el tercero, y creo que es muy importante para nosotros, para el Partido Socialista, y para los demás, reconocer a esta persona que en su momento, en aquel gobierno, fue alcalde de Hondarribia en el exilio. Es de agradecer la voluntad mostrada por todos los partidos. Eso es de agradecer. Bueno, eso ha traído consigo una moción. Y para nosotros esa persona es muy importante, como también lo son Canoura, Floro y otros concejales. Para nosotros es importante y es de agradecer el trabajo realizado por todos los partidos, así como la colaboración de la ciudadanía. Gracias.

**ALKATE JAUNA:** Bai, EH Bilduren izenean, Garoa.

**EL SR ALCALDE:** Sí, por parte de EH Bildu, Garoa.

**LEKUONA ANDREA:** Gure aldetik ere eskertzekoak dira, aipatuz lehenik eta behin gaur

**LA SRA LEKUONA:** Por nuestra parte agradecer también la labor realizada, y dejar claro

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

hona iritsi dela herritar batzuen lan nekaezinari esker, eta historialari horiei esker, tartean. Badiitugu gaur hemen gurekin pare bat. Beraz, guztioi eskerrik asko. Bestela, gu ez ginen ados jarriko. Nik uste dut hori horrela dela, eta lanak erraztu dizkiguzuela, akaso horregatik gara Euskal Herrian lehenengo udala horrelako errekonozimendu bat egiten duguna, eta horren garrantzia berrigintzatik herritar ezberdinen ikuspegi ezberdinetik pasatako ordu guztiak zerrenda hau osatzeko, zuen arteko eztabaidak, nor egon behar zuen, nor ez, nor hasieran bai, nor ez… Horrek suposatu duen lanketa guztiarengatik.

que esta iniciativa ha llegado hoy aquí gracias a la labor incansable de algunas personas, y también de los y las historiadoras, de los cuales tenemos hoy aquí a dos con nosotros. Así que gracias a todos y a todas. Yo creo que eso es así, porque nos habéis facilitado el trabajo, puede que sea por eso que somos el primer ayuntamiento del País vasco en hacer un reconocimiento tal, y por la importancia que ha tenido trabajar el tema desde la perspectiva de la ciudadanía a la hora de completar esta lista, los debates, quién tenía que estar y quién no, quién al principio sí, quién no… Así que gracias por todo el trabajo que eso ha supuesto.

Gero, aipatu nahi dut gauza bat, laurogeita zortzi urte egin behar ditugula atzera. Niri halakoetan gogorarazten dit gaztetan jo, historia zertarako ikasi behar dugun, eta irakasleak esaten zigula akats berdinak ez errepikatzeko. Ba hemen, laurogeita zortzi urteko historia bat dago, Aitzolek aipatu duen bezala, batzuen memoriari hauspotu zaio gehiago, beste batzuena, laurogeita zortzi urte behar izan da, eta nik uste dut garrantzitsua dela alderdi horretatik gaur egiten ari garena, eta seguru nago honek ere ekarriko duela lanketa gehiago zabaltzea gure inguruko herrietan ere. Eskerrik asko bizikidetza batzordean badiitugulako gure gora-beherak, baina gauzak lortzen direnean eta adostasuna iristen denean ere, zentzu gehiago ematen diote hemen egiten dugun horri. Eskerrik asko alde horretatik ere.

Luego, quiero comentar una cosa, y es que tenemos que retroceder ochenta y ocho años. A mí me recuerda a cuando era joven, y decíamos “para qué tenemos que estudiar Historia”, y el profesor nos decía que, por ejemplo, para no repetir los mismos errores. Pues aquí tenemos una historia de ochenta y ocho años, y tal y como ha mencionado Aitzol, la memoria de unos se alentó mucho, mientras que la de otros ha tardado en llegar ochenta y ocho años, y yo creo que lo que estamos haciendo es importante desde esa perspectiva, y estoy segura de que esto traerá consigo una mayor difusión de este trabajo en las localidades de nuestro alrededor. Gracias, porque en la comisión de convivencia tenemos nuestros más y nuestros menos, pero cuando se consiguen cosas como ésta y llegamos a un consenso, todo ello da más sentido a lo que hacemos aquí. Por tanto, gracias también por ello.

**ALKATE JAUNA:** Ba ongi baderitzozue, bozkatzera pasako gara. Zazpigarren puntuan, Abotsanitz, EAJ, PSE eta EH Bilduren izenean aurkeztutako Hondarribiko alkate, zinegotzi eta udal-funtzionarioak haien karguetan birjartzeko proposamenaren aldeko bozkak? Aho batez onartuta.

**EL SR ALCALDE:** Si les parece bien, vamos a pasar ahora a la votación. En el séptimo punto, ¿votos favorables a la propuesta de restitución en sus cargos de alcaldes, concejales y funcionarios municipales de Hondarribia, presentada en nombre de Abotsanitz, PNV, PSE y EH Bildu? Aprobada por unanimidad.

Orain bai, pasako gara zortzigarren puntura.

Ahora sí, pasamos ahora al octavo punto.

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

**GOBERNU ORGANOEN KONTROLA**

**8.-2024KO 1847. ZENBAKITIK 2546. ZENBAKIRA BITARTEKO ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

2024ko ekainaren 24ko 1847. zenbakitik irailaren 18ko 2546. zenbakira bitarteko dekretuen berri eman ondoren, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Gobernu organoen kontrolei dagokiona da eta 2024ko 1847. zenbakitik 2546. zenbakira bitarteko Alkate Dekretuen berri ematearen inguruan, ez dakit galderarik badagoen.

Bederatzigarren puntura pasako gara, beraz.

**9.-ERREGU ETA GALDERAK.**

Interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Erregu eta galderei dagokionean, ez dakit norbaitek duen. Erregistratuta ez dago galderarik, baina adierazi zait galderak egiteko asmoa badagoela. Gonzalo?

**CARRION JAUNA:** Mila esker Igor. Bozeramaileen bileran aipatu dugun moduan, galdera batzuk ekarri ditugu. Ahal bada erantzun, erantzun, eta bestela, beste baterako.

Bi, jaietako galderak dira; beste bat mugikortasun astearena; eta bestea parke teknologikokoa.

Arma Plazako danborrada:

Azken jaietan bizi izan ditugun une zailak atzean utzi nahi ditugu, baina aurrera jarraitzeko eta datorren urtera begira giro hobean lan egiteko, udalbatza iritsi aurretik Arma Plazan zer gertatu zen argitzea eta jakitea garrantzitsua dela uste dugu.

**CONTROL DE ÓRGANOS DE GOBIERNO**

**8.-DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA NÚMEROS DEL 1847 AL 2546 DE 2024.**

Dada cuenta de los Decretos de Alcaldía del nº 1847 de 24 de junio al nº 2546 de 18 de septiembre de 2024, el Ayuntamiento Pleno queda enterado.

Intervenciones en relación al acuerdo:

**EL SR ALCALDE:** Es el punto correspondiente a los controles de los órganos de gobierno, para dar cuenta de los Decretos de Alcaldía números 1847 a 2546 del año 2024. No sé si desean preguntar algo.

En tal caso, pasaremos al punto noveno.

**9.-RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Intervenciones:

**EL SR ALCALDE:** No sé si alguien desea plantear algún ruego o pregunta. No hay ninguna preguntada registrada, pero se me ha comunicado que alguien desearía plantear algunas preguntas. ¿Gonzalo?

**EL SR CARRION:** Muchas gracias, Igor. Tal y como hemos comentado en la reunión de portavoces, hemos traído algunas preguntas, para que las respondan si les es posible. Y si no, lo dejaríamos para otra ocasión.

Dos preguntas son sobre las fiestas, otra sobre la semana de la movilidad y otra sobre el parque tecnológico.

La tamborrada en la Plaza de Armas:

Queremos dejar atrás los difíciles momentos que hemos vivido durante las últimas fiestas, pero para seguir adelante y empezar a trabajar en un mejor escenario para el próximo año, creemos que será importante aclarar y saber qué ocurrió en la Plaza de Armas antes de que llegara la corporación.

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

Badakigu danborradari ez ziotela plazan sartzen utzi, orain arte urte luzeetan egin izan duten bezala. Eta oraindik ez dago argi nork eman zuen agindua.

Sabemos que a la Tamborrada no se le permitió entrar en la plaza tal y como lo habían hecho durante años hasta ahora. Y no está claro aún quién dio la orden.

Aurreko egunetan agertoki horretan eta une horretan ezer ez zela aldatuko esan zigutela kontuan hartuta, jakin nahi genuke zer gertatu zen, zergatik eman ziren adostutakoaren kontrako aginduak.

Teniendo en cuenta que los días anteriores se nos había dicho que nada iba a cambiar en ese escenario y en ese momento, nos gustaría saber qué pasó para que se dieran órdenes contradictorias a lo que se había acordado.

Aurten danborradak ez bazuen bertan egoteko baimenik izango, zergatik ez zen aldez aurretik jakinarazi?

Si este año la Tamborrada no iba a tener permiso para estar ahí, ¿por qué no se comunicó previamente?

Une honetan oraindik ez badakigu zer gertatu zen, garrantzitsua iruditzen zaigu kontua argitzea eta jakinaraztea, galdutako konfiantza berreskuratu ahal izateko.

Si en este momento todavía no se sabe qué es lo que ocurrió, nos parece importante que se aclare y se comunique para poder recuperar la confianza perdida.

Hau da galdera.

Ésta es la pregunta.

**ALKATE JAUNA:** Irailaren 7an HAOSEk (Hondarribiko Alardearen Ondarea Sustatzeko Elkartea) baimena zeukan paradorearen aurrean elkartzeko beste urteetan gertatu izan ohi den bezala. Bai jakinarazten dut ez alkatetza honetatik eta alkate izatean ere udaltzain-buruzagitzan egotera eramaten nauela, alkatetza honetatik ez dela kontrako agindurik eman Ahoseko inor egon ez zitekeenik. Jakin badakit eguna bera ere oso gogorra izan zelako, egunean bertan elkartu nintzen udaltzain-buruekin hemen, udaletxean, eta udaltzain-buruei galdetu nien ea zer zen gertatu zena, ze momentu horretan ez genekien zer zen gertatu zena. Baimena bazutela han egoteko, eta ea norbaitek kontrakorik esan zien, eta udaltzaingo buruzagitzatik ere jakinarazi zitzaidan ez zegoela kontrako irizpenik Ahoseko kideak Arma plazan, paradorearen fatxadaren aurrean egoteko. Ez da egon kontrako agindurik. Hori oso garbi uzten dut. Ez da egon kontrako agindurik udaletxe honetatik danborrada ezin egoteko beste urteetan bezala, badago udaltzaingoaren beste txosten bat ere zentzu berean, nola ez. Baina, esan beharra daukat ere ikerketarekin jarraitzen dela, oraindik insistitzen delako udaletik ez dela baimen hori eman, edo ez dela onartu norbait egotea. Eta, argi eta garbi esango dut Dekretu bat badagoela hor egon zitezkeela Ahoseko kideak, eta Dekretu hori indarrean egon zela bere iraunaldiak izan duen epe guztian. Ez da

**EL SR ALCALDE:** El 7 de septiembre HAOSE (Hondarribiko Alardearen Ondarea Sustatzeko Elkartea) tenía permiso para reunirse frente al parador tal y como ha solido hacerse en otros años. Asimismo les comunico que desde esta alcaldía, y en calidad de alcalde ello me lleva a estar al frente de la policía municipal, no se dio ninguna orden en contra de la presencia de ningún miembro de Ahos. Sé muy bien que el día fue también muy duro, y ese mismo día me reuní aquí, en el Ayuntamiento, con los jefes de la policía municipal, y les pregunté qué era lo que había pasado, porque en ese momento no sabíamos qué había pasado. Que tenían permiso para estar allí, y a ver si alguien les había dicho lo contrario; incluso la propia jefatura de la policía local me comunicó que no había ningún dictamen en contra de que los miembros de Ahos estuvieran en la plaza de Armas, frente a la fachada del parador. No hubo ninguna orden contraria a eso. Eso lo dejo muy claro. Desde este Ayuntamiento no ha habido ninguna orden contraria a que esta tamborrada estuviera presente allí, al igual que otros años; y, cómo no, hay otro informe de la policía municipal en el mismo sentido. Pero debo decir que se continúa con la investigación, porque todavía se insiste en que desde el ayuntamiento no se dio tal permiso, o que no se ha permitido que hubiera nadie allí. Y tengo que decir claramente



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

inolako kontrako agindurik egon udalaren aldetik.

que hay un Decreto que establece que los miembros de Ahos podían estar allí, y que ese decreto estuvo vigente durante todo el plazo. Por parte del Ayuntamiento no hubo ninguna orden contraria.

**CARRION JAUNA:** Eskerrik asko.

**EL SR CARRION:** Gracias.

Udalbatzaren portaera:

Comportamiento de la corporación:

Dudarik gabe, Arma Plazan sortu eta jasan behar izan genuen tentsio unea gogorra izan zen gu guztiontzat, dudarik gabe. Ekitaldi solemnea da, non Udalbatzak Aurreskua dantzatzen duen, herritarren omenez; une benetan hunkigarri eta solemnea da. Plazan sortutako giroak, gure ustez, udalbatza honetako kide batzuen portaera desegokia eta, zenbait kasutan, errespeturik gabea eragin zuen udalbatzako kideen artean, bai Arma Plazan bertan, bai Udaletxean, Kale Nagusitik jaitsi ondoren. Keinu jakin batzuek, esaterako, ukabila jasotzeak garaipena adieraziz, indar ariketa batean bagina bezala, tentsioa areagotu besterik ez zuten egin une hartan.

Sin duda el momento de tensión generado en la Plaza de Armas que nos tocó sufrir fue duro para todos nosotros. Sin duda. Un acto solemne, en el que la Corporación baila el Aurresku en honor de la ciudadanía es un momento emotivo y solemne. El clima generado en la plaza generó, en nuestra opinión, el comportamiento poco adecuado y en algún caso irrespetuoso de miembros de esta corporación hacia compañeros de corporación, tanto en la misma Plaza de Armas como en el Ayuntamiento tras bajar la calle Mayor. Gestos como levantar el puño en señal de victoria, como si estuviéramos en una batalla de fuerza, no hicieron más que aumentar la tensión en ese momento.

Herritarrei eskatzen badiegu begirunez eta gizalegez jokatzea, uste dugu gu geu garela eredugarri jokatzen hasi behar dugun lehenak”.

Si solicitamos a la ciudadanía un comportamiento respetuoso y cívico, creemos que somos nosotros los que debemos empezar dando ese ejemplo”.

**ALKATE JAUNA:** Galdera?

**EL SR ALCALDE:** ¿La pregunta?

**CARRION JAUNA:** Hori da.

**EL SR CARRION:** Ésa es.

**ALKATE JAUNA:** Ez dakit zen galdera edo erregua. Ez dut

**EL SR ALCALDE:** No sé si era pregunta o ruego. No…

**CARRION JAUNA:** Beno, galdera eta erregua nik uste.

**EL SR CARRION:** Bueno, creo que es ruego y pregunta.

**ALKATE JAUNA:** Nik esan beharra daukadana zentzu honetan da irailak 7an gertaturikoa, zuk esan duzun bezala, Acto Solemne esan duzun bezala, eta iruditzen zait alde batetik korporazio-kide guztiak erasotuak izan ginela momentu horretan, guztiontzat izan zela oso gogorra. Korporazioak ez duela horrelako erantzunik merezi, ez dela bidezkoa, ezta aurreskua bera dantzatzeak duen solemnitateak ez duela merezi horrelako erantzun bat jasatea.

**EL SR ALCALDE:** Lo que yo tengo que decir en ese sentido es que lo ocurrido el 7 de septiembre, como usted bien ha dicho, respecto al Acto Solemne, me parece que, por un lado, todos los miembros de la Corporación fuimos agredidos en ese momento, y fue muy duro para todos y todas. La Corporación no merece una respuesta así, no es justo, y la solemnidad del propio Aurresku tampoco merece tener que sufrir una respuesta así.

Korporazio-kideen jarrera ona edo desegokia izan

Si la actitud de los miembros de la corporación ha



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

den, hori bakoitzaren gaia da, ez dakit erasotua izan den korporazioko kide baten aldetik batak besteari, edo ez, baina zalantzarik gabe horrek sortu zuela korporazio-kide guztion artean tentsio-gune handi bat, eta ez dakit desegokia izan daitekeen edo ez, baina ez dagoena zalantzarik da tentsio giro horrek eragin ahal izan zuela guztiak oso tentsionatuak egotea. Berriz errepikatuko dut erasoa jasan genuenok, korporazio-kideak izan ginela, eta aurreskua bera izan zela, eta iruditzen zaidala hemen guztiok gaitzetsi beharko genukeela horrelako eraso bat egitea udal ordezkarioi. Hori da nire iritzia, eta ez dut uste galdera edo erregua zenik, baizik eta hausnarketa zenez, nik ere nire hausnarketa partekatzen dut.

sido buena o inadecuada, eso lo tendrá que valorar cada uno, no sé si un miembro de la corporación ha sido agredido o si fue una agresión de uno contra otro, pero no hay duda de que eso creó un momento de gran tensión entre todos los miembros de la corporación, y no sé si es inadecuado o no, pero de lo que no tengo duda es de que ese instante de tensión provocó que todos estuviéramos muy tensionados en ese momento. Vuelvo a repetir que quienes sufrimos la agresión fuimos las y los miembros de la Corporación, y que sucedió en el momento del Aurresku, y me parece que todos los grupos debiéramos condenar aquí esa agresión a los y a las representantes municipales. Ésa es mi opinión, y no creo que fuera una pregunta o un ruego, sino más bien una reflexión, y por tanto, yo también he querido compartir mi reflexión.

**CARRION JAUNA:** Mila esker, Igor.

**EL SR CARRION:** Gracias, Igor.

Mugikortasunaren Astea:

Semana de la Movilidad:

Ez zaigu egokia iruditu irailaren 22ko goizean (igandean) E25 eta E27 lineetan hainbeste geldialdi murriztu eta kendu izana, Mendeluko errepidea ixtearen ondorioz.

No nos ha parecido adecuado que se hayan reducido y eliminado tantas paradas en las líneas E25 y E27 durante la mañana del domingo 22 de septiembre debido al corte de la carretera de Mendelu.

Garraio publikoari hain modu negatiboan eragiten dioten erabakiak hartzea, noiz eta Mugikortasun Jasangarriaren Astean, hain zuzen, ez zaigu iruditzen koherentea denik.

No es coherente, en la semana de la movilidad sostenible, tomar decisiones que afecten tan negativamente al transporte público.

Gobernu taldeari eskatzen diogu, beraz, hurrengorako, kontuan har dezala hori, eta beste erakunde batzuekin koordinatu eta ados dezala zerbitzu publikoa, erabiltzaileei kalterik egin gabe. Mendelu kalea trafikoari mozteak, komunikazio kanpaina baten barruan egindako ekintza gisa, baliteke ibilgailu pribatuen trafiko handiagoa eragin izana. Eta hori guztiz kontraesankorra eta inkoherentea da Mugikortasunaren Asteko helburuekin.

Solicitamos al equipo de gobierno que, para otras ocasiones, tenga en cuenta este hecho y coordine y acuerde con otras instituciones el servicio público sin perjudicar a las personas usuarias. Es probable que el corte de la calle Mendelu al tráfico, como una acción dentro de una campaña de comunicación, haya generado más tráfico de vehículos privados. Totalmente contradictorio e incoherente con los objetivos de la semana de la movilidad.

**URTIZBEREA ANDREA:** Bai, egia da, bagenekien Mendelu kalea mozteak Ekialdebus zerbitzuan eragingo zuela, hasieratik bagenekien. Zerbitzua kudeatzen zuen pertsonarekin ibili ginen lanketan eta ikusi genuen, oker ez banago, orain memoriaz ari naiz, autobus bat galtzen zela.

**LA SRA URTIZBEREA:** Sí, es cierto, sabíamos que el corte de la calle Mendelu iba a afectar al servicio de Ekialdebus; lo sabíamos desde el principio. Estuvimos estudiando el tema con la persona que gestionaba el servicio y, si no me equivoco, estoy hablando de memoria, vimos que

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

Baloratu genuen, ea zer izan zitekeen egokiago, maiztasuna mantendu baina ibilbidean moldaketaren bat egin, baina baloratu genuen igande goiza izanik eta, printzipioz, gure bizitza-martxa beste bat denez, asumitu zitekeen galera bat zela. Oraindik ez dugu balorazio-bilera egin, udaltzaingoarekin ere elkartu behar gara ikusteko ea trafiko-mozketa horrek sortu duen gidariren batengan haserre nabarmenen bat. Printzipioz ez dugu jaso, momentuan bertan. Beraz, ulertzen dut ez dela ezer larria egon, baina bai, bagenekien, baloratu genuen eta, hala ere, iruditu zitzaigun egingarria zela.

se perdía un autobús. Valoramos a ver que podía ser más acertado, si mantener la frecuencia y hacer alguna adaptación en el recorrido, pero valoramos que, siendo la mañana del domingo y, en principio, como nuestra marcha vital es otra, era una pérdida asumible. Todavía no hemos hecho la reunión de valoración; también tenemos que reunirnos con la policía municipal para ver si este corte de tráfico ha generado en algún conductor algún enfado importante. En principio no hemos recibido nada. Por tanto, entiendo que no ha habido nada grave, pero sí, lo sabíamos, lo valoramos y nos pareció que era factible.

**CARRION JAUNA:** Bai, honi lotuta, beste baterako, agian, batzorde batean aipatu programazioa zatika enteratu baino lehen. Gustatuko litzaiguke, batez ere, kasu honetan. Aipatzeko, batez ere.

**EL SR CARRION:** Sí, en relación con esto, tal vez para otra ocasión, antes de que en una comisión nos enteremos por partes de la programación mencionada. Nos gustaría, sobre todo en este caso. Más que nada por comentarlo.

Eta azken galdera.

Y la última pregunta.

Parke Teknologikoa:

Parque Tecnológico:

Azken egunotan, Mikel Jauregi Industria Sailburuari entzun diogu Euskadiko parke teknologikoei buruz hitz egiten, eta laster Hondarribian lehen urratsak emango direla zehaztu du. Zubietako Campus Teknologikoa aurrera doala jakitea albiste bikaina da Hondarribirako, baina HAPOren izapidetzaren mende dago. Jakin nahi genuke ea gobernu taldeak bilerak egiten jarraitu duen, proiektua aurrera ateratzeko, eta ea egungo egoera zein den.

Los últimos días hemos escuchado al Consejero de Industria, Mikel Jauregi, hablar sobre el futuro de los Parques Tecnológicos de Euskadi y concretar que próximamente se darán los primeros pasos en Hondarribia. El desarrollo del Campus Tecnológico en Zubieta es una gran noticia para Hondarribia, pero depende de la tramitación del PGOU. Nos gustaría saber si el equipo de gobierno ha seguido manteniendo reuniones para avanzar con este proyecto y saber cuál es la situación actual.

**URTIZBEREA ANDREA:** Bai, ba begira, pozten naiz biziki galdera hau egiteaz. Izan ere, astelehenean eduki genuen bilera Parke Teknologikoko gerentea eta bere lantaldearekin. Bilera horretan, prestu da, bai beraien aldetik bai gure aldetik proiektuarekiko daukagun konpromisoa eta, zuk esan duzun bezala, beste maila batzuetako ordezkariek ere horrela adierazi dute. Gainera, bilera horretan hitz egin genuen talde politiko guztiei dagoeneko adierazi dizuegun nolabaiteko begirada berria, Parke Teknologikoari eman nahi dioguna. Izan ere, Zubietako Lursail nagusiena Foru Aldundiarena da. Gainera, Foru lur-funtsa izendatua dago. Horrek esan nahi du lur hori okupatzen baldin bada, nolabait konpentsatu egin behar dela.

**LA SRA URTIZBEREA:** Sí, mire, me alegro mucho de que lo pregunte. De hecho, el lunes tuvimos la reunión con el gerente y el equipo de trabajo del Parque Tecnológico. En dicha reunión se ha dejado claro, tanto por parte de ellos como por nuestra parte, el compromiso con el proyecto y, como usted bien ha señalado, así lo han manifestado representantes de otros niveles. Además, en esa reunión hablamos de una nueva mirada que ya os hemos expresado a todos los grupos políticos y que queremos trasladar al Parque Tecnológico. De hecho, la principal Parcela de Zubieta es la de la Diputación Foral. Además, ya está designado el fondo de suelo foral. Eso significa que si se ocupa ese terreno, hay que

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

compensarlo de alguna manera.

Ikusita ere plan orokorrak aurreikusten dituen garapen berri gehienek lur emankorrenak kontsumituko dituela, iruditzen zitzaigun Parke Teknologikoak nolabait jaso behar zituela lehenengo sektorearekiko kezka, edo eremua eman behar ziola. Oreka Berdeko Foru Diputatuarekin kontaktuan jarri ginen. Izan ere, beraiek badute proiektu bat, Hobegunea izena duena, eta labur esateko, esango dut Hobegunea dela sukaldaritzan Basque Culinary Center bat izan daitekeen ideia bat, lehen sektorerako erreberentziazko zentro bat, berrikuntzarako, innobaziorako eta garapenerako bideratuko dena. Foru Diputatuak, Xabier Arrutik kasu honetan, begi onez ikusi zuen hemen edukitzea zentro horretarako eremu bat. Hasiera batean zentro bat bakarrik aurreikusten zuten, baina konturatu dira hobe dela lurraldean zehar zentro gehiago edukitzea, eta oso egokia iruditu zitzaien. Asteleheneko bileran hauxe bera trasladatu genien Parkeko gerente eta bere taldeari. Beraiek ere oso begi onez ikusten dute, izan ere, beraien marka posizionamendurako izan daitekeelako berezitasun bat eta, nolabaiteko core competence edo plus bat. Beraz, oso tonu onean goaz, eta aurrera. Bai, bai.

A la vista de que la mayoría de los nuevos desarrollos previstos en el plan general va a consumir los terrenos más fértiles, nos pareció que el Parque Tecnológico tenía que reflejar de alguna manera la preocupación hacia el sector primario, o al menos reservarle un espacio. Nos pusimos en contacto con el Diputado Foral de Equilibrio Verde. De hecho, ellos tienen un proyecto, llamado Hobegunea, y, para explicarlo brevemente, diré que Hobegunea es una idea que podría dar como resultado un Basque Culinary Center de alta cocina, un centro de referencia para el sector orientado hacia la innovación y el desarrollo de este sector. El diputado foral Xabier Arruti vio con buenos ojos tener aquí una zona dedicada a ese centro. En un principio sólo preveían un centro, pero se han dado cuenta de que es mejor tener más centros distribuidos por el territorio, así que les pareció muy adecuado. En la reunión del lunes les trasladamos esto mismo al gerente del Parque y a su equipo. Ellos también lo ven con muy buenos ojos, ya que puede ser una particularidad para posicionar su marca y una especie de core competence o plus. Por tanto, va bien, y así que, adelante con ello. Sí, sí.

**CARRION JAUNA:** Mila esker, listo.

**EL SR CARRION:** Muchas gracias, eso es todo.

**ALKATE JAUNA:** Beste norbaitek? Josu?

**EL SR ALCALDE:** ¿Alguien más? ¿Josu?

**ALVAREZ JAUNA:** Nire aldetik, bi galdera. Laburrak dira.

**EL SR ALVAREZ:** Por mi parte, dos preguntas. Son breves.

Bat, nik uste dut aipatu nuela bere momentuan. Bigarren aldiz galdetzen dut pleno batean. Hor dago Mendelu 29, farmaziaren inguruan, dago lur-sail bat, bere garaian garbitzeko ireki zen hori, gero, horko pertsona horrek sartu zituen autobus bat, gero kotxe bat, gero ez dakit zer, eta hor daude. Bere momentuan pibotea jarri zitzaion, ez sartzeko gehiago, baina ez dakit gehiago. Horren inguruan zerbait gehiago aurreratu da? Momentu honetan nola dago? Badakit munizipalen informe bat badagoela, eta zenbait informe baino, ez dakit nik situazioa nola dagoen momentu honetan. Ze egoeratan dagoen. Jakin nahiko nuke nola dagoen.

Una, yo creo que lo mencioné en su momento. Lo pregunto por segunda vez en un pleno. Ahí está Mendelu 29, alrededor de la farmacia, hay ahí un terreno, ese que se abrió en su día para limpiar; luego, esa persona metió un autobús, luego un coche, luego no sé qué más, y ahí están. Luego en su momento se le puso un pivote, para que no siguiera entrando, pero no sé nada más. ¿Se ha avanzado algo en ese tema? ¿Cómo está este tema ahora mismo? Sé que hay un informe de la policía municipal, y algún informe más también hay, pero no sé ahora mismo en qué situación está eso. No sé en qué situación está y quisiera saberlo.

**URTIZBEREA ANDREA:** Egia da galdera hau ere lehendik egina zenuela, eta gaur egungo egoera izan

**LA SRA URTIZBEREA:** Es cierto que esta pregunta ya la había planteado, y la situación



ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

da hor zeuden ibilgailu horiek izendatu direla hiri-hondakin bezala, eta hori izendatzeko zuk diozun udaltzaingoaren nolabaiteko inbentario batean oinarritu zirela. Errekeritu zaio hori hustutzeko, eta prozedura horretan hasi behar ginela, behin pibotea jarrita, konturatu gara zerrendan zegoena baino ibilgailu gehiago daudela. Honen erantzunari esan diezaiokedan gauza bakarra da inork ez digula pibotea irekitzeko eskatu, beraz, ez dakigu oso ondo nola iritsi diren beste bi ibilgailu gehiago lur-eremu horretara. Honekin esan nahi dudana da inbentario hori berritu behar dela, berregin hiri-hondakin horren izendapena, eta aurrera egiteko.

Badakizu… gauza arraroetarako…

**ALVAREZ JAUNA:** Beno, bigarren galdera da, ez dakit… beharbada, ustekabean harrapatuko zaitut.

Polideportiboaren ingurukoa da. Ez dakit erantzuna… Ea ba.

Bere garaian…polideportiboko… kolektibo batzuek erreklamazioak aurkeztu zituzten udako prezioei buruz; are gehiago, uste dut elkarte batzuek idatziz galdetu zutela ea tarifak igotzeko arrazoiak zeintzuk ziren. Udako tarifei buruz ari naiz. Azken boladan, jakin ahal izan dudanez, badirudi neguko zerbitzuen tarifak igotzeko asmoa ere badagoela, behintzat zenbait kasutan. Nik badakit standa-by egoera batean gaudela, hau da, Hondarribia Lantzen likidatzen ari da, eta gai hau udalean dago, eta biharko egunean tasen barruan egongo da… Orduan, in-pass egoera horretan, udaleko gobernu taldeak noizbait eman beharko digu informazioa, jakiteko zein zerbitzu garestituko diren, zer tarifa jarriko diren, zergatik, nola… Hori egiteko asmorik ba al duzuen jakin nahi nuke.

Baina, beno, egoera argitzearren, lehenik eta behin esan kiroldegiko prezioak orokorrean ez direla igo. Zuk esaten duzun bezala, udako kanpainan erabaki zen zenbait aktibitateri zegokien prezioa igotzea, baztertuta ekonomikoko jasangarriak izan behar zirela ordura arte ordaintzen ziren prezioak oso txikiak zirela eta ez zietela aurre egiten oinarrizko gastuei, baina beti ere aktibitateaz ari gara. Hori Hondarribia Lantzenek ospatu zuen batzorde batean,

actual es que esos vehículos se calificaron como residuo urbano, y que para ello se tomó como base una especie de inventario realizado por la policía municipal. Se le ha requerido que lo vacíe, y cuando íbamos a empezar a proceder a ello, una vez colocado el pivote, nos hemos dado cuenta de que había más vehículos que los reflejados en el listado. Lo único que puedo dar a esta respuesta es que nadie nos ha pedido permiso para quitar el pivote; por tanto, no sabemos muy bien cómo han llegado ahí otros dos vehículos más. Con esto lo que quiero decir es que es necesario renovar el inventario, renovar esa clasificación de residuo urbano, para seguir adelante.

Ya sabes… para cosas raras…

**EL SR ALVAREZ:** Bueno, segunda pregunta, no sé… igual te cojo un poco desprevenido...

Es una pregunta sobre el polideportivo…No sé la respuesta…A ver.

En su momento…del polideportivo…hubo unas reclamaciones por parte de unos colectivos sobre el tema de unos precios del tema de verano, incluso creo que algunas asociaciones, hicieron una solicitud por escrito argumentando o solicitando cuáles eran las razones de la subida de las tarifas. Me refiero a las de verano. Últimamente, por lo que sea, me han dicho, que también, para lo que son los servicios de invierno también se está planteando una subida de tarifas, en algunos casos. Yo entiendo que estamos en una situación de stand-by, en el sentido de que Hondarribia Lantzen se está liquidando, está el tema del ayuntamiento, el día de mañana van a formar parte de las tasas… En esa situación de in-pass, en algún momento se tiene idea por parte del equipo de gobierno del ayuntamiento de informarnos sobre qué es lo que se va a subir, qué precios, por qué, cómo… si hay alguna idea de hacer eso.

Pero, bueno, por aclarar la situación, en primer lugar decir que los precios del polideportivo en general no han subido. Como usted dice, en la campaña de verano se decidió elevar el precio de ciertas actividades, habida cuenta de que debían ser sostenibles en lo económico, que las tarifas establecidas hasta entonces eran muy bajas y que no servían para hacer frente a los gastos básicos, pero siempre refiriéndonos a la actividad. En una

ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e

aho batez onartu zen, irizpide hori mantentzea, eta horren baitan aktibitate konkretu batzuen igoera onartzea, eta neguko kanpainan, irizpide berdinarekin, eta aktibitate konkretu batzuetan ere, igoera gauzatu da. Oinarrizko gastuei aurre egiteko helburuarekin. Orduan, momentuz, irizpide hori mantentzen da, nahi baduzu adibide bat jarriko dizut, horri buruzko kexa konkretua jaso dugulako. Mantenu-gimnasia hiru ordu astean ematen dena, iaz arte 16 euro hiru hilabetero ordaintzen zen, hau da, 5,33 euro hilabetean, 0,44 euro orduro. Hori zen ordaintzen zena, eta egoera hori ez zen jasangarria. Hau guztia abonatua den pertsona batentzat. Orain planteatu den prezioa, 34,90 euro hiruhileko batean ordaintzea, hau da, 11,63 hilabetean, eta ordua 0,96 euro izatea. Uste dugu arazo hau aurretik datorrela, 2015. Urtetik kiroldegiko prezioak ez baitira eguneratu, ez dira igoerak gauzatu. Eta ez da kudeatzailearen aldetik igoera prezio bat planteatu edo, planteatu denean, ez da onartua izan Hondarribia Lantzeneko batzarretan. Beraz, printzipioz, kexa desberdinak egon dira. Batzuekin harremanetan jarri gara eta azalpenak eman dizkiegu, eta irizpidea mantenduko da araudi fiskalean prezio berriak txertatzen ez diren bitartean. Hori da azaldu nahiko genukeena.

comisión organizada por Hondarribia Lantzen se aprobó por unanimidad mantener ese criterio y en la misma se propuso incrementar el precio de determinadas actividades, y en la campaña de invierno, con el mismo criterio, y también en algunas actividades concretas, se ha materializado ese incremento. Con el objetivo de hacer frente a los gastos básicos. Entonces, de momento, se mantiene ese criterio; si quiere le pongo un ejemplo, porque hemos recibido una queja concreta al respecto. En gimnasia de mantenimiento, que se imparte tres horas semanales, hasta el año pasado se pagaban 16 euros al trimestre, lo cual supone 5,33 euros al mes, o 0,44 euros la hora. Eso era lo que se pagaba, pero esa situación no era sostenible. Todo esto para una persona que sea abonada. El precio ahora planteado es de 34,90 euros al trimestre, es decir, 11,63 euros al mes, y la hora sale a 0,96 euros. Creemos que este problema viene de antes, ya que desde 2015 los precios del polideportivo no se han actualizado, no se han materializado las subidas. Y no se ha planteado una subida de precios por parte del gestor, o, cuando se ha planteado, no ha sido aceptada en las asambleas de Hondarribia Lantzen. Así que, en principio, ha habido distintas quejas. Nos hemos puesto en contacto con las personas interesadas y les hemos dado explicaciones, y se mantendrá este criterio mientras no se introduzcan nuevos precios en la normativa fiscal. Eso es lo que queríamos decir.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko. Beno, galderak, ez dakit. Galderak eta erreguak erantzunda, berez, ohiko Udalbatzari amaiera emango diogu. Eskerrik asko etortzeagatik eta streaming bitartez jarraitu dutenei. Eskerrik asko teknikariei ere, eta formalki batzarra bukatzen dugu, baina, lehen aipatu dudan bezala, hitza eskatu denez, eskatzen dizuet ordezkarioi bertan gelditzea eta herritarren hitza entzuteko aukera izatea, ados? Bada, mila esker.

**EL SR ALCALDE:** Gracias. Bueno, no sé si hay preguntas... Una vez respondidos los ruegos y preguntas, damos por finalizado el Pleno Ordinario. Gracias por venir y gracias también a quienes nos habéis seguido por streaming. Y gracias también al personal técnico. Así pues, damos formalmente por finalizado el pleno, pero, como habíamos dicho, puesto que se ha pedido la palabra, pido a los representantes que se queden y puedan escuchar la palabra de la ciudadanía, ¿de acuerdo? Pues gracias.

**Eta beste aztergairik ez dagoenez, biltzarburuak bilkura amaitutzat eman du arratsaldeko zazpiak eta hogeita hemezortzian neuk ziurtatzen dudan akta hau eginez. Elektronikoki sinatutako agiria**

**Y no habiendo más asuntos que tratar, la presidencia levantó la sesión a las diecinueve horas y treinta y ocho minutos, extendiéndose esta acta que certifico. Documento firmado electrónicamente.**

**OE/ Vº Bº**
**Igor Enparan Araneta**
**Alkatea/ El alcalde**

**Gorka Urgoiti Agirre**



EKS | CSV: ESKU9d97eb6f-7a32-49f1-95e5-e460447c8c5e
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=03610*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=03610*